

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala sortzen duen ekainaren 4ko 3/2013 Legea

*Testu hau Estatuko Aldizkari Ofizial batzuetan argitaratutako testuen
itzulpena da. Ez du izaera ofizialik.*

Ondoko legeek ezarritako aldaketak barne hartzen ditu:

*Sistema elektrikoaren finantza-egonkortasuna bermatzeko premiazko neurriak hartzen dituen
uztailaren 12ko 9/2013 Errege Lege-dekretua.*

HITZAURREA

I

Merkatu-ekonomian, merkatuak efizentziaz aritzea eta lehia eraginkorra izatea oinarritzko printzipioak dira. Ekonomia horrek, kontsumitzaileen mesederako, faktoreen produktibitatea bultzatzen du, eta ekonomiaren lehiakortasuna sustatzen. Printzipio horiek funtsezkoak dira, halaber, jarduera ekonomikoak arautzen dituzten politikak diseinatu eta definitzeko.

Esparru horretan, erakunde gainbegiratzaileen egitekoa jarduera ekonomikoko sektore jakin batzuen funtzionamendu egokia bermatzea da, alderdi teknikoiei buruzko proposamenak egitea, eta enpresen eta Administrazioaren arteko gatazkak konpontzea.

Arrazoi birengatik sortu ziren erakunde independenteak: batetik, merkatuko akatsak izateko aukerak zituzten sektoreak arautzeko eta gainbegiratzeko lanen konplexutasunagatik, eta, bestetik, jarduera irizpide teknikoetan soilik oinarrituko zuten agintariak izateko beharra antzematen zelako operadoreen artean.

Erakunde arautzaile independenteek 1887an dute jatorria; urte hartan, Ameriketako Estatu Batuetako Kongresuak erakunde independente bati eman zion trenbidearen sektorea arautzeko agindua: Interstate Commerce Commission batzordeari, alegia. Prozesu horretan aurrera eginez, 1914an Federal Trade Commission delakoa sortu zen, monopolioaren aurkako politikak sustatzeko xedez. Batzorde arautzaile independente horien esperientzia Ameriketako Estatu Batuetako administrazio-jardueren ohikotasunean integratu da, agentzia bidezko administrazioan, hango sistema juridikoaren eta administrazio-egituraren beharrei erantzunez. Europako zuzenbideetan ez da horrelakorik planteatu.

Atlantikoaren alde honetan, Europako herrialdeek, merkatuen funtzionamendu-akatsak zuzentzeko, zerbitzu publikoak ematen zituzten enpresak nazionalizatzea erabaki zuten, edo xede bereko sozietate publikoak sortzea. Bestalde, joan den mendeko 70eko hamarkadako korrante europarrak formula

antolatzaile independenteetan gorpuztu ziren, neutraltasuna eta espezializazio teknikoko irizpideak lortzeko asmoz; zehazki, interes sozial handiko sektoreetan, hala nola burtsa-sektorean, informatika-datuak babesteko sektorean, eta ikus-entzunezkoen sektorean.

Arestian aipatutako joera horiekin bat etorriz, 80ko eta 90eko hamarkadetan hasi ziren egungo Europar Batasuneko herrialde ugari, horien artean Espainia, merkatu bakarraren esparruan prozesu liberalizatzaile garrantzitsua bultzatzen, sareko sektore jakin batzuk arautzen zituzten zuzentarauek eraginda (energiaren, telekomunikazioen eta garraioaren sektoreetan, adibidez); hori dela-eta, hainbat erreforma gauzatu ziren merkatuetan lehia eraginkorra bermatzeko, zerbitzu unibertsalak eskaintzeko, eta sarrera-oztopoak nahiz prezio-murrizketak ezabatzeko.

Testuinguru horretan, eztabaida bizia sortu zen: lehiara irekitako merkatu berriak lehiaren defentsarako arau eta agintari nazionalen mende egon behar ziren, ala, aitzitik, sektoreko erakunde berri eta independenteak arduratu behar ziren haiek gainbegiratzeaz?

Espainiaren kasuan, eginkizunak bereiztea erabaki zen. Sektore-agintariak sektore arautuetako eta lehia-sektoreetako enpresen arteko bereizketa bertikala bermatu zuten, eta operadoreen artean sortzen ziren gatazkak konpondu zituzten; batik bat, oinarrizko azpiegituretarako sarbide askea bermatu beharra zegoen kasuetan. Horrez gain, ikuskapenak egiteko eta zehapenak ezartzeko ahalak esleitu zitzaizkien erakunde berriei, baita ekonomiaren eta teknikaren arloko araudiak proposatzeko eta sektoreari buruzko azterlanak egiteko eginkizuna ere.

Bestalde, Lehiaren Defentsarako Agintaritzak lehia askearen *ex post* kontrola eta *ex ante* kontrola gauzatzen ditu: lehiaren defentsarako araudiaren aurkako jardunak ikertuz eta zehatuz, batetik, eta, enpresa-kontzentrazioko eragiketarako aztertuz, bestetik.

Dagoeneko denbora-tarte bat igaro denez sistema hori ezarri zenetik, zeinak onura handiak ekarri dituen sektore arautuen liberalizazio-prozesuan eta lehiarako trantsizioan, sistema berrikustea komeni da.

2011z geroztik, erakunde horien kopurua nabarmen handitu da. Urte horretara arte, bost ziren erakundeak: Energiaren Batzorde Nazionala, Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordea, Lehiaren Batzorde Nazionala, Trenbideak Arautzeko Batzordea, eta Posta Sektorearen Batzorde Nazionala. Ekonomia Iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legeak seigarren baten sorrera aurreikusi zuen: garraio-sektorea arautzen zuen erakundearena, hain zuzen. Geroago, Jokoaren Batzorde Nazionala eta Aireportuen Arautze Ekonomikorako Batzordea sortzea onartu zen. Horiei Ikus-entzunezkoen

Estatuko Kontseilua gehitu behar zaie, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Lege Orokorrean araututakoa.

Sistema berrikusteko orduan kontuan hartu beharreko lehen bi elementuak ondoko hauek dira: segurtasun juridikoa eta erakunde-konfiantza. Merkatu guztiek ez ezik, jarduera ekonomikoko sektore guztiek izan beharko lituzkete bi ezaugarri horiek. Horretarako, arau garbiak behar dira, erakunde-arkitektura serioa, eta agente ekonomiko guztiek ezagutzen dituzten jarduera-irizpideak. Zenbat eta handiagoa izan jarduera bat gainbegiratzeko ahalmena duten erakundeen kopurua, orduan eta handiagoa izango da operadore bakoitzaren kontrolean alferrikakoak diren bikoiztasunak eta erabaki kontraesankorrak aurkitzeko arriskua.

Bigarrenik, ondo aprobetxatu behar dira gainbegiratze-eginkizun berdinetatik edo antzekoetatik eratorritako eskala-ekonomiak, antzeko jarduera-metodologiak eta -prozedurak, eta, batez ere, ezaguerak eta esperientzia. Irizpide horrek garrantzi berezia du Herri Administrazioak garaiotan bizi duen laztasun-testuinguruan.

Hirugarrenik, erakundeek beren eskumeneko sektoreak izaten ari diren eraldaketara egokitzen jakin behar dute. Erakundeek erantzun bat eman behar diote aurrerapen teknologikoari, horrela, aldaketa teknologiko edo ekonomiko sakonak izan dituzten eta ikuspegi integratuan oinarrituta arautu edo gainbegiratu beharko liratekeen sektoreetako alderdiak arautzen dituzten agintaritzak estankoa saihesteko.

Azken urteetan, sektore bakar batekin edo elkarren artean lotura estua duten sektoreekin zerikusia duten agintaritzak fusionatzeko joera zabaldu da nazioartean; sektore bakarreko eredutik aldentzen ari dira, eta antzeko jardueren konbergentzia organiko, material edo funtzionaleko eredura hurbiltzen, edota sektore anitzeko eredura, sareko industriak dituzten sektoreen kasuan. Eredu horien alde egiteko argudio nagusiak bi dira: eskala-ekonomiak optimizatzea eta sareko industria guztiak arautzea. Gainera, arautzaileak atzemateko arriskua —sektore pribatuaren nahiz Gobernuaren aldetik— txikitu egiten da sektore anitzeko agintaritzen kasuan, agintariarentzat murriztu egiten delako sektore edo ministerio jakin baten garrantzi erlatiboa.

Azkenik, kasu batzuetan, Herbeheretan adibidez, sektore batzuetako agintari arautzaileak lehia-agintaritzan txertatu dira. Horrela, eraginkortasun handiagoz gainbegiratzeko lehia, berehala lor ditzaketelako sektoreen arautzaileen ezaguerak, horiek etengabe kontrolatzen baitituzte dagozkien sektoreak, datuak prozesatzeko tresna sendoagoak dituztelako.

Espanian, gure inguruko herrialdeetan ezartzen ari diren eruedetarantz jo beharko genuke; izan ere, produktuen eta zerbitzuen merkatuekin loturiko zortzi

erakunde gainbegiratzaille sortzea onartu da, eta beste bat sortzea aurreikusi da. Funtsean, erakunde horien guztien oinarrian dagoen filosofia hauxe da: merkatuetan, lehia bermatzea, eta zerbitzuetan, kalitatea; betiere, herritarren mesedetan. Entitate horiek guztiak modu berezian egoteak, bakoitzak bere gobernu-organoak eta bitarteko materialak dituela, erreforma sakona eskatzen du, azken batean horien guztien eginkizunak, prozedurak, metodologiak eta ezaguerak erakunde bakar batek gauza edo aplikatu ditzakeelako, haien izaera edo antzekotasuna dela-eta.

Europako araudiak agintaritzatzaile nazional independenteak aurreikusten ditu, eta eginkizun, helburu eta eskumen zehatzak esleitzen dizkie. Dena den, Espainiako batzordeen eskumenak Europako araudiak eskatzen dituenak baino zabalagoak dira sektore-politikari dagokionez, jarduera zehatzak gauzatzeko gaitasuna ematen duten tituluak emateari eta errebokatzeari dagokionez, Gobernuaren aholkularitzari dagokionez, eta sektoreen azterketari edo ikerketari dagokienez.

Horregatik, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala sortzea du xede lege honek. Eta batzorde horrek bilduko ditu, hain zuzen ere, Energiaren Batzorde Nazionalak, Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordeak, Lehiaren Batzorde Nazionalak, Trenbideak Arautzeko Batzordeak, Posta Sektorearen Batzorde Nazionalak, Aireportuen Arautze Ekonomikorako Batzordeak eta Ikus-entzunezkoen Estatuko Kontseiluak gainbegiratzen dituzten merkatuen eta sektoreen funtzionamendu egokia bermatzeko eginkizunak.

II

Legeak hogeita hemeretzi artikulua ditu –bost kapitulutan multzokatuta–, hemezortzi xedapen gehigarri, hamar xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat, hamaika azken xedapen eta eranskin bat.

I. kapitulua, «Izaera eta araubide juridikoa», Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren sorrerari buruzkoa da. Haren helburua merkatuaren funtzionamendu egokia bermatzea, mantentzea eta sustatzea da, baita produkzio-sektore eta merkatu guztien lehia eraginkorraren gardentasuna bermatzea ere, kontsumitzaile eta erabiltzaileen mesedetan. Batzordea erakunde publiko bat da; zehazki, Estatuko Administrazio Orokorraren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko apirilaren 14ko 6/1997 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian aurreikusten direnetako bat.

Batzordeak izaera juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatu osoa ditu, eta legearen arabera jardungo du uneoro; gainera, autonomia organikoa eta funtzionala izango du, eta ez du inolako mendekotasunik izango Gobernuaren, herri-administrazioen edo edozein motatako enpresa- eta merkataritza-

interesen aldetik. Independentzia horri kalterik egin gabe, Batzordeak behar bezala egiaztatuko du Estatuan aplikatu beharreko araudi orokorra eta sektoreko araudia modu uniformean aplikatzen direla, honako hauekin elkarlanean arituz: Estatuko Administrazio Orokorrarekin, autonomia-erkidegoekin, organo jurisdikzionalekin, Europar Batasuneko erakundeekin —batik bat Europako Batzordearekin—, eta beste estatu kide batzuetako erakunde eta agintaritza eskudunekin.

II. kapituluan, «Eginkizunak», Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren eginkizunak deskribatzen dira. Eginkizun horiek bi talde nagusitan sailka daitezke. Batetik, Batzordeak, oro har, merkatu guztietan jardungo du, horien lehia defendatzeko eta sustatzeko. Kasu horietan, gainbegiratzeko zein arbitraje- eta kontsulta-lanak egingo ditu.

Nabarmentzekoa da Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legean lehiaren defentsarako zehazten diren eginkizun guztiak Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari eman zaizkiola. Aldaketa horrek ez dio uztailaren 3ko 15/2007 Legearen funtsezko edukiri eragiten, eta, beraz, lege hori dagoen-dagoenean mantenduko da, araua aplikatzeko eskema instituzionalari dagokionean izan ezik.

Bestetik, Batzordeak, araututako merkatu eta sektore batzuetan, eginkizun berezi batzuk gauzatuko ditu, kasu horietan lehia defendatzeko araudia aplikatze soila ez delako nahikoa lehia eraginkorra bermatzeko. Zehazki, honako hauek dira aipatutako sektore edo esparruak: komunikazio elektronikoak eta ikus-entzunezkoen komunikazioa, elektrizitatearen eta gas naturalaren merkatuak, posta-sektorea, aireportu-tarifak eta trenbide-sektoreko alderdi batzuk.

Batzordeak sektore horietan gauzatuko dituen eginkizunak sektoreak arautzen dituzten erakundeek bete izan dituzte orain arte, interes publikoekiko independentzia bermatzearen. Bereziki, gainbegiratzeko eta kontrolatzeko eginkizunak izango ditu Batzordeak, baita gatazkak konpontzekoa ere, arbitraje hutsa baino modu zabal eta malguagoan.

Erakunde berriak bete beharko dituen funtzioei dagokienez, berrantolatu egin dira haren eginkizunak; batzuk Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren esku egongo dira, eta beste batzuk dagozkien ministerio-departamentuen esku. Seigarren xedapen gehigarritik hamaikagarrenera bitartekoek zehazten dute zein eginkizun hartuko dituen ministerio bakoitzak bere gain. Eginkizunak berregituratzean, esku-hartze publikoaren eraginkortasuna bermatu nahi du legeak. Ministerioek, oro har, ordura arte erakunde arautzaileek gauzatzen zituzten administrazio-izaerako eginkizun guztiak hartuko dituzte beren gain, lanok egiteko independentzia berezirik behar ez delako; horrez gain, Batzordearen helburuak betetzeko erabilgarritasun txikia zuten eginkizunak ere

eskuratuko dituzte. Horri guztiari esker, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak bere helburu nagusia betetzeko egiaz baliagarriak diren eginkizunetan jardungo du; hots, merkatuen funtzionamendu egokia eta lehia askea bermatzeko xedez.

III. kapituluak, «Antolaketa eta funtzionamendua», Batzordeko organo gidarien osaera, kargudunak izendatzeko eta kargugabetzeko araubidea, eta eginkizunak arautzen dira. Kontseiluak eta Batzordeko lehendakariak osatzen dute organo gidaria.

Kontseilua Batzordearen erabakiak hartzen dituen organoa da, kide anitzekoa; haren eginkizunen artean, Batzordeari esleitutako gaiak ebaztea eta irizpenak ematea, eta zehapen-prozedurak ebaztea daude. Kontseiluak osoko bilkuretan eta saletan jarduten du: saletako bat lehiarekin lotutako gaiez arduratzen da, eta bestea araudia gainbegiratzeaz.

Kontseiluak hamar kide ditu: lehendakaria, lehendakariordea eta zortzi kontseilari. Kontseiluko kide guztiak, lehendakaria eta lehendakariordea barne, Gobernuak izendatzen ditu, errege-dekretuz; nolana ere, Kongresuak betoa jar diezaiotke proposatutako hautagaiaren izendapenari. Kongresuak onespena emateko eskakizun berri horren bitartez, indartu egiten da Batzordearen legitimitate demokratikoa. Kontseiluko kideen agintaldia sei urtekoa izango da, eta ez dute berrautatuak izateko aukerarik.

Bestalde, zuzendaritza-organoen oinarritzko egitura arautzen da; horrenbestez, lau instrukzio-zuzendaritza ezarri dira: bat lehia defendatzeko espedienteen instrukziorako, eta beste hirurak araudia gainbegiratzearekin lotutako gaien instrukziorako, telekomunikazioen, ikus-entzunezkoen, energiaren, garraioaren eta postaren sektoreetan.

Horrez gain, azpimarratu beharra dago uztailaren 3ko 15/2007 Legean jasotako instrukzio-eginkizun guztiak Lehia Zuzendaritzari esleitu zaizkiola, eta, orain arte bezala, lehia defendatzeko araudian xedatutako bakartasunari, koherentziari eta izaera horizontalari eutsiko zaiela aurrerantzean ere.

Azkenik, Batzordearen funtzionamendu-araubidearen lege-oinarriak finkatu dira; Gobernuak errege-dekretu bidez garatuko ditu oinarri horiek, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Estatutu Organikoa onestean, bai eta Batzordearen Kontseiluak ere, barne-funtzionamendurako erregelamenduen bidez. Estatutuak zuzendaritzen eta gainerako erantzukizun-esparruen barne-egitura zehaztuko du, instrukzio- eta ebazpen-eginkizunen arteko bereizketa behar bezala bermatuz.

IV. kapituluak, «Jarduera-araubidea eta ahalak», oinarritzko alderdiak arautzen ditu gainbegiratzeko ahalari, zehatzeko ahalari, kontratazio- eta langile-araubideari, eta ekonomia-finantza, ondare eta aurrekontuen arloetako

araubideari dagokionez. Azkenik, eta Batzordeak hartutako erabakien independentzia bermatzearen, Kontseiluak osoko bilkuran nahiz saletan hartutako ebazpenek administrazio-bideari amaiera emango diotela aurreikusten da; horrenbestez, horiei administrazioarekiko auzien jurisdikzioan bakarrik egin ahal izango zaie aurka.

V. kapituluak, «Gardentasuna eta erantzukizuna» izenekoan, Batzordeak publiko egin beharreko alderdi guztiak xedatzen dira, eta Kongresuak zein Senatuak Batzordearen gainean izango duten kontrola arautzen da. Kapitulu horretan xedatutakoa Ekonomia Iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legean jasotzen diren berritasunetan oinarritzen da, hein handi batean.

Batzordearen jardunaren gardentasunak indartu egiten du haren legitimitatea, eta herritarrek erakundearekiko duten konfiantza areagotzen laguntzen du. Hori horrela, Batzordeak publiko egin behar ditu igorritako txosten guztiak, jardueren urteko txostena eta urteko nahiz hainbat urterako planak. Batzordeak, halaber, publiko egin beharko ditu Kontseiluak hartutako akordioak eta ebazpenak, bai eta bere organoen antolaketa eta eginkizunak ere; gainera, barne-kontrolerako organo bat izango du. Parlamentu-kontrola gauzatzeko, Batzordeko lehendakariak, gutxienez urtean behin, agerraldia egin beharko du Kongresuan.

Xedapen gehigarrietan, lege honen bidez jasotzen den erakunde-erreforma ahalbidetzeko zenbait alderdi osagarri arautzen dira. Era berean, honako alderdi hauek aurreikusten dira: Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren sorrera, lege hau indarrean sartzen denetik gehienez ere lau hilabeteko epean gertatu beharrekoa; erakundeen iraungipena, Batzordeak horien eginkizunak bere gain hartzen dituenean; fusiotik sobera geratu diren ondasunak Estatuko Administrazio Orokorrean integratzea; ministerio-departamentuek hartzen dituzten eginkizunak, merkatu arautuei dagokienez; eta iraungitako erakundeetako langileak Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalan edo Estatuko Administrazio Orokorrean txertatzea, dagokion moduan.

Bestalde, xedapen iragankorretan, erakunde berria abian jarri ahal izateko beharrezko alderdi batzuk arautzen dira, honako hauei buruzkoak: kontseilarien lehen agintaldia; Batzorde berria abian jarri bitartean, desagertu egingo diren erakunde arautzaileek gauzatzen dituzten eginkizunak; Batzordeak edo Ministerioak gauzatu beharreko espedienteen jarraipena; Batzordearen aurrekontuak, eta langileen araubidea.

Xedapen indargabetzailean eta azken xedapenetan, arau hau indarrean sartzeak ukitutako lege-lerruneko arauak indargabetzen eta aldatzen direla adierazten da, erregelamenduzko garapena aurreikusten, eskumenak gaitzen, eta Legea indarrean noiz sartuko den zehazten.

Eranskinean, legean arautzen diren jarduerekin eta zerbitzuekin loturik dauden izaera publikoko ondare-prestazioak eta tasak jasotzen dira; horiek Altxor Publikoan ordainduko dira.

I. KAPITULUA

Izaera eta araubide juridikoa

1. artikulua. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala.

1. Honen bidez, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala sortzen da. Erakunde publiko bat izango da; hain zuzen ere, Estatuko Administrazio Orokorraren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko apirilaren 14ko 6/1997 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian aurreikusten direnetako bat.

2. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren helburua merkatu eta ekoizpen-sektore guztietan funtzionamendu egokia, gardentasuna eta lehia eraginkorra bermatzea, mantentzea eta sustatzea da, kontsumitzaile eta erabiltzaileen mesedetan.

3. Aurreko paragrafoan adierazitakoaren ondorioetarako, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak Espainia osoan gauzatuko ditu bere eginkizunak, eta merkatu edo sektore ekonomiko guztiei dagokienez.

2. artikulua. Izaera eta araubide juridikoa.

1. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak nortasun juridiko propioa du, eta gaitasun publiko eta pribatu osoa; gainera, autonomia organiko eta funtzionalarekin jarduten du bere jardura garatzeko eta helburuak lortzeko, eta erabateko independentzia du Gobernuarekiko, herri-administrazioekiko eta merkatuko agenteekiko. Era berean, Parlamentuaren eta Botere Judizialaren kontrolpean dago.

2. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak honako manu hauetan xedatutakoaren arabera jardungo du: uztailaren 3ko 15/2007 Legea, Lehia Defendatzekoa; lege honetako 6. artikulutik 11. artikulura aipatzen diren eta haren gainbegiratzearen mende dauden merkatuei eta sektoreei buruzko legedi berezia; ordezeko modura, azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena; apirilaren 14ko 6/1997 Legea, Estatuko Administrazio Orokorraren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzkoa, haren hamargarren xedapen gehigarrian aurreikusten denaren arabera; azaroaren 26ko 47/2003 Legea, Aurrekontuen Lege Orokorra, eta gainerako ordenamendu juridikoa.

3. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak Madrilen izango du egoitza nagusia. Haren Estatutu Organikoa onartuko duen errege-dekretuan, beste egoitza batzuk ere aurreikusi ahal izango dira.

4. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioari atxikita dago; nolahi ere, lege honetako 5. artikulutik 12. artikulura aipatzen diren eginkizunak betetzeko, dagokien ministerio eskudunekin harremanetan izango da.

3. artikulua. Independentzia funtzionala eta erakunde publiko nahiz pribatuekin izango duen harremana.

1. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak enprekin edo merkataritzarekin lotutako interesekiko independentziaz jardungo du, dauzkan helburuak lortzeko.

2. Legediak esleitzen dizkion eginkizunak betetzean, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren organoetako kideek eta langileek ezin izango dute entitate publiko edo pribatuen agindurik eskatu edo jaso; betiere, beste organo batzuekin izan dezakeen lankidetzari nahiz Gobernuaren politika orokorraren zuzendaritza-ahalmenei kalterik egin gabe.

4. artikulua. Erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzak.

1. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak lurralde osoan aplikatu beharreko sektoreko araudia eta araudi orokorra modu uniformearen aplikatzen direla egiaztatuko du, autonomia-erkidegoetako organo eskudunekin koordinatuta, eta Estatuko Administrazio Orokorraren eta organo jurisdikzionalen lankidetzarekin.

2. Era berean, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala lankidetzan arituko da Europar Batasuneko erakundeekin; batik bat, Europako Batzordearekin eta beste estatu kide batzuetako agintaritza eskudunekin eta erakundeekin, jardueren koordinazioa sustatuz, aplikatzekoa den legedian aurreikusten den moduan. Bereziki, Energiaren Arautzaileen Kooperaziorako Agentziarekin eta Komunikazio Elektronikoaren Europako Arautzaileen Erakundearekin sustatuko ditu lankidetzak eta kooperazioak.

II. KAPITULUA

Eginkizunak

5. artikulua. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren eginkizun orokorrak, eta ekoizpen-sektore eta merkatu guztietan lehia eraginkorra zaintzeko eta bultzatzeko eginkizunak.

1. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak honako eginkizun hauek izango ditu ekoizpen-sektore eta merkatu guztietan funtzionamendu egokia, gardentasuna eta lehia eraginkorra bermatzeko, mantentzeko eta sustatzeko, kontsumitzaile eta erabiltzaileen mesedetan:

a) Merkatu eta sektore ekonomiko guztiak gainbegiratzea eta kontrolatzea.

b) Arbitraje-eginkizunak aurrera eramatea, bai zuzenbidekoak bai ekitatezkoak, operadore ekonomikoek hala eskatzen diotenean, Arbitrajeari buruzko abenduaren 23ko 60/2003 Legea betez, eta legeek esleitutako gainerako eskumenak betetzea; betiere, autonomia-erkidegoetako organo eskudunek beren esparruetan dituzten eskumenei kalterik egin gabe.

Arbitraje-eginkizun horrek ez du izaera publikoa izango. Arbitraje-prozedura errege-dekretu bidez arautuko da, eta entzunaldiaren, froga-askatasunaren, kontraesanaren eta berdintasunaren oinarritzko printzipioetara egokituko da.

c) Uztailaren 3ko 15/2007 Legeak lehia eragozteari, murrizteari edo faltsutzeari dagokionez xedatzen duena aplikatzea, autonomia-erkidegoetako lehia defendatzeko organo eskudunek eta jurisdikzioek dauzkaten eskumenei kalterik egin gabe.

d) Uztailaren 3ko 15/2007 Legeak kontzentrazio ekonomikoak kontrolatzeko xedatzen duena aplikatzea.

e) Uztailaren 3ko 15/2007 Legeak laguntza publikoen arloan xedatzen duena aplikatzea.

f) Espainian Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 101 eta 102. artikulua eta horien ondoriozko Zuzenbidea aplikatzea, arlo horretako jurisdikzioari dagozkion eskumenei kalterik egin gabe.

g) Hartu beharreko neurriak eta erabakiak hartzea, Europako Batzordearekiko eta estatu kideetan lehiaren arloko eskumenak dituzten beste erakunde batzuekiko elkarlana eta espedienteen banaketa nola bideratu zehazteko; hori guztia Batasuneko araudian dago zehaztuta, eta, bereziki, ondorengo bi erregelamenduetan: Kontseiluaren 2002ko abenduaren 16ko 1/2003 Erregelamenduan (EE), Europako Erkidegoaren Itunaren 81 eta 82. artikuluetan lehiari buruz aurreikusitako arauak ezartzearen gainekoan (Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 101 eta 102. artikulua), eta Kontseiluaren 2004ko urtarrilaren 20ko 139/2004 Erregelamenduan (EE), enpresen arteko kontzentrazioak kontrolatu eta hori garatuko duten arauen gainekoan.

h) Lehiaren esparruko azterlanak eta ikerketak sustatzea eta egitea, baita sektore ekonomikoari buruzko txosten orokorrak ere.

i) Lege edo errege-dekretu bidez esleitzen zaizkion gainerako eginkizunak betetzea.

2. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak organo aholku-emaille gisa jardungo du merkatu eta sektore ekonomikoetan lehia eraginkorra mantentzearekin eta horien funtzionamendu egokia mantentzearekin lotutako gaietan. Zehazki, ondorengo erakundeek eskatu ahal izango diote aholkua: ganbera legegileek, Gobernuak, ministerio-departamentuek, autonomia-erkidegoek, toki-korporazioek, elkargo profesionalek, merkataritza-ganberak eta enpresari, kontsumitzaile nahiz erabiltzaileen elkarteek. Eginkizun hori gauzatzean, honako jarduera hauek egingo ditu:

a) Txostenen bidez, arauak prestatzeko prozesuan parte hartzea, horiek bere eskumen-esparruari, lehia defendatzeko araudiari eta araubide juridikoari eragiten dietenean.

b) Uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 1, 2 eta 3. artikuluetan aurreikusitako jokaeren egileek salatzailerei eta hirugarrenei ordaindu beharreko kalte-ordainak kuantifikatzeko irizpideei buruzko informazioa ematea, eskumena duen organo judizialak hala egiteko eskatzen badio.

c) Uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 16. artikuluan eta Kontseiluaren 2002ko abenduaren 16ko 1/2003 Erregelamenduan (EE) adierazitako alderdi guztiei buruzko informazioa ematea; erregelamendu hori Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 101 eta 102. artikuluetan aurreikusitako eskumenei buruzko arauak ezartzearen gainekoa da, organo jurisdikzional nazionalekiko kooperazio-bideei dagokienez.

d) Indarrean den araudian aurreikusitakoaren arabera, dagozkion gaien inguruko informazioa ematea.

3. Aurreko 1 eta 2. paragrafoetan xedatutakoari kalterik egin gabe, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak lege honetako 6. artikulutik 11. artikulura xedatutakoa beteko du komunikazio elektronikoen eta ikus-entzunezko komunikazioaren merkatuetan, sektore elektrikoan eta gas naturalaren sektorean, trenbide-sektorean, aireportu-tarifen arloan eta posta-merkatuan.

4. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak, bere eginkizunak betetzean, legitimitatea izango du eskumena duen jurisdikzioaren aurrean administrazio-zuzenbideari loturik dauden herri-administrazioen egintzak eta lege-lerrunetik beherako xedapen orokorrak aurkakotzeko, horien bidez merkatuko lehia eraginkorrari oztopoak jartzen baldin bazaizkio.

5. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak, bere eginkizunak gauzatu ahal izateko, dagozkion finantza- eta giza baliabideak izango ditu, lege honetako IV. kapituluan aurrekontuei dagokienez ezartzen denarekin bat etorritik; baliabide

horien artean, Energia Arautzaileen Kooperaziorako Agentziaren eta Komunikazio Elektronikoen Europako Arautzaileen Erakundearen jardueretan modu aktiboan parte hartu ahal izateko eta horiei laguntzeko beharrezkoak direnak sartuko dira.

6. artikulua. Komunikazio elektronikoen merkatua gainbegiratzea eta kontrolatzea.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak komunikazio elektronikoen merkatuen funtzionamendu egokia gainbegiratu eta kontrolatuko du. Bereziki, honako eginkizun hauek beteko ditu:

1. Komunikazio elektronikoen sareei eta zerbitzuei dagozkien erreferentzia-merkatuak definitzea eta aztertzea –horien artean, handizkako eta txikizkako erreferentzia-merkatuak–, bai eta horien esparru geografikoa ere, haien ezaugarriak direla-eta betebeharrak zehatzak ezartzea zilegi denean, Telekomunikazioei buruzko azaroaren 3ko 32/2003 Legean eta hori garatzen duen araudian zehaztutakoaren arabera.

2. Merkatuan botere esanguratsua duten operadoreak identifikatzea, erreferentzia-merkatuen azterketa egitean lehia eraginkorrik ez dagoela ondorioztatzen denean.

3. Hala dagokionean, erreferentzia-merkatuetan botere esanguratsua duten operadoreei dagozkien betebeharrak zehatzak ezartzea, azaroaren 3ko 32/2003 Legean eta hori garatzen duen araudian zehaztutako moduan.

4. Lege honetako 12.1.a) artikuluan aipatzen diren komunikazio elektronikoen merkatuetan gertatzen diren gatazkak ebaztea.

5. Azaroaren 3ko 32/2003 Legeak eta hori garatzen duen araudiak esleitzen dizkieten eginkizunak betetzea.

6. Lege edo errege-dekretu bidez esleitzen zaizkion gainerako eginkizunak betetzea.

7. artikulua. Sektore elektrikoa eta gas naturalaren sektorea gainbegiratzea eta kontrolatzea.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak sektore elektrikoaren eta gas naturalaren sektorearen funtzionamendu egokia gainbegiratu eta kontrolatuko du. Bereziki, honako eginkizun hauek beteko ditu:

1. Lege honetako 30. artikuluan xedatutakoaren arabera emandako zirkularren bidez, aurrez entzunaldi-izapidea betez, eta eraginkortasun ekonomikoaren, gardentasunaren, objektibotasunaren eta diskriminaziorik ezaren irizpideei jarraiki, honako alderdi hauek zehaztea:

a) Elektrizitate-sareetara sartzeko bidesarien zati bat kalkulatzeko metodologia, elektrizitatearen sektorearen azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 17.1 artikuluan zehazten diren garraio- eta banaketa-kostuei dagokiena; guztia ere, aipaturiko legean eta hori garatzeko araudian tarifei eta ordainsari dagokienez ezarritako esparruarekin bat etorriz.

Ondorio horietarako, kontsumitzaile eta sortzaileei garraio- eta banaketa-kostuak eraginkortasunez esleitzea joko da bidesariak kalkulatzeko metodologiatzat.

b) Azpiegitura mugakideetara sartzeko metodologia, ahalmena esleitzeko eta metaketa kudeatzeko prozedurak barne, azpiegiturretara sartzeko eta energia elektrikoa ekoizteko merkatuak funtzionatzeko arau-esparruari eta erregelamenduz zehazten diren irizpideei jarraiki.

c) Sistemaren operadore batek baino gehiagok kudeatutako sistemak orekatzeko zerbitzuak emateko metodologiak, sarearen erabiltzaileei beren ekoizpena eta kontsumoa orekatzeko pizgarri egokia eskainiko dizkietenak kostu txikienaren, bidezko moduaren eta diskriminaziorik ezaren ikuspuntutik, sistema elektrikoak behar bezala funtzionatzeko arau-esparruarekin bat etorriz.

d) Gas-instalazioetara sartzeko oinarrizko zerbitzuen bidesariak eta kanonak kalkulatzeko metodologia:garraioa eta banaketa, birgasifikazioa, zisternen karga eta biltegiatzea, Hidrokarburoen Sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legean eta hori garatzen duen araudian definitzen den tarifa- eta ordainsari-esparrua kontuan hartuta.

e) Oreka-zerbitzuak emateko metodologia, sarearen erabiltzaileek gas-sistemaren sarrerak eta irteerak orekatzeko pizgarri egokiak eman ditzaten, urriaren 7ko 34/1998 Legean eta hori garatzeko araudian definitutako sistemara sartzeko eta sistemak funtzionatzeko arau-esparruan.

f) Azpiegitura mugakideetara sartzeko metodologiak, ahalmena esleitzeko eta metaketa kudeatzeko prozedurak barne, urriaren 7ko 34/1998 Legean eta hori garatzeko araudian definitutako sistemara sartzeko eta sistemak funtzionatzeko arau-esparruan.

2. Honako hauek gainbegiratzea: interkonexio-ahalmenaren kudeaketa eta esleipena, garraiolariak eta enpresa banatzaileak konexioak eta konponketak egiten ematen duten denbora, eta sareetako ahalmen-metaketa konpontzeko mekanismoak.

Ondorio horietarako, garraio-sarearen kudeatzaileek edo, hala badagokio, banatzaileak alde interesdunei interkonexioei, sarearen erabilerari eta ahalmen-esleipenari buruzko beharrezko informazioa behar bezala jakinarazten dietela gainbegiratuko du.

3. Gasaren sektoreko garraio-, birgasifikazio-, banaketa-, biltegitratze- eta hornidura-jarduerak, eta sektore elektrikoaren sortze-, garraio-, banaketa- eta hornidura-jarduerak gainbegiratzea eta, hala badagokio, bereiztea, eta, bereziki, haien arteko bereizketa funtzionala eta kontuen artekoa, jarduera horien artean diru-laguntza gurutzatuak saihesteko.
4. Hornitzaile-aldaketekin lotutako araudia eta prozedurak betetzen direla kontrolatzea.
5. Gas naturalaren sektorean, biltegitratzera –tartean, lurpeko biltegitratzeetara–, gas natural likidotuaren deposituetara, gasbideetan biltegitratutako gasera eta bestelako zerbitzu osagarrietara sartzeko baldintzak gainbegiratzea. Halaber, jabeek oinarrizkoak ez diren gas naturalaren biltegitratzeetarako ezartzen diren betekizunak betetzen dituztela gainbegiratuko du.
6. Elektrizitatearen ekoizle berriei aplikatzekoak zaizkien konexio-baldintzak eta -tarifak gainbegiratzea.
7. Garraio-sarearen kudeatzaileen inbertsio-planak gainbegiratzea; bereziki, Europar Batasunaren esparruan sarea garatzeko onartutako planari egokitzen zaizkion egiaztatzeak. Gainera, inbertsio-plan horiek aldatzeko gomendioak egin ditzake.
8. Hornidura etengabeko kontratuetan eta epe luzeko kontratuetan kontratu-askatasuna errespetatzen dela egiaztatzea; betiere, indarrean den legediarekin eta Europar Batasuneko zuzenbidearekin bateragarriak badira.
9. Sareen segurtasun- eta fidagarritasun-arauak betetzen direla egiaztatzea.
10. Garraiolari eta banatzaileek, eta, hala badagokio, sareen jabeek eta garraio- eta banaketa-sareen kudeatzaileek aplikatzekoa den araudian ezartzen diren betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzea, baita mugaz gaindiko gaietan ere. Halaber, gasaren eta Elektrizitatearen sektoreetan diharduten subjektuek Europar Batasuneko arauetan xedatutakoa behar bezala aplikatzen dutela egiaztatuko du.
11. Azken kontsumitzaileei eskainitako hornidura-baldintzek eta -prezioek urriaren 7ko 34/1998 Legean, azaroaren 27ko 54/1997 Legean eta horiek garatzen dituzten arauetan xedatutakoa betetzen dutela gainbegiratzea, eta gutxienez urtero gomendioak argitaratzea, hornidura-prezioak zerbitzu publikoaren betebeharrak eta kontsumitzaileen babesera egokitu daitezela.
12. Bezeroei beren kontsumo-datuak sarbidea bermatzea, eta hori modu ulergarrian, harmonizatuan eta azkar gertatzen dela egiaztatzea.
13. Erabiltzaileei eskainitako hornidurako akatsen erantzule diren subjektuak zehaztea, eta hartu beharreko neurriak proposatzea.

14. Sektore elektrikoaren eta gas naturalaren sektorearen gardentasuna eta lehiakortasuna bermatzea, handizkako prezioen maila barne, eta gas- eta elektrizitate-enpresek gardentasun-betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzea.

15. Merkatuaren eta lehiaren eraginkortasuna eta maila gainbegiratzea, handizkako nahiz txikizkako merkatuetan; horien artean sartuko dira, besteak beste, energia elektrikoaren eta gas naturalaren kontsumitzaileek planteatutako erreklamazioak, eta energia elektrikoaren eperako kontratazioen enkante arautuak.

Ondorio horietarako, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak igorritako informazioa hartu ahal izango du kontuan; zortzigarren xedapen gehigarrian aipatzen dena, alegia.

16. Horniduraren segurtasuna bermatzea ahalbidetzen duten sormen-ahalmeneko inbertsioak gainbegiratzea.

17. Sare Kudeatzaile Independentearen eta instalazioen jabearen arteko harremana gainbegiratzea, horien artean sortutako gatazkak konpontzeko organo gisa jardutea, eta Sare Kudeatzaile Independentearen inbertsioak onartzea.

18. Energia elektrikoa eta gasa garraiatzeko sareen kudeatzaileen eta hirugarren herrialdeetako kudeatzaileen arteko lankidetzak teknikoa gainbegiratzea.

19. Banaketa-sarearen kudeatzaileek onartutako neurriak gainbegiratzea, jarrera diskriminatzailearik gerta ez dadin.

20. Eskualde mailako merkatu-prozesuetan datuak trukatzeko sistemak bateragarriak izan daitezen laguntzea.

21. Urtero, operadore nagusiak eta menderatzaileak zehaztea, baita operadore horiei dagozkien gainerako eginkizunak ere, Ondasun eta Zerbitzuen Merkatuetan Lehia Areagotzeko Premiazko Neurriek buruzko ekainaren 23ko 6/2000 Errege Lege Dekretuan xedatzen denari jarraiki.

22. Araututako jardueren defizitari eta horien finantzazio-mekanismoei dagokienez, zehaztutako informazioa mantentzea eta jakinaraztea; eskatzen zaizkion txostenak, aitorpenak, ziurtagiriak eta komunikazioak bidaltzea; Industria, Energia eta Turismo Ministerioarekin batera beharrezkoak diren kalkuluak egitea, eta Sistema Elektrikoaren Tarifaren Defizitaren Titulizazio Funtzaren Ministerio arteko Batzordeari aholkularitza teknikoa eskaintzea; betiere, azaroaren 27ko 54/1997 Legearen hogeita batgarren xedapen gehigarrian eta sistema elektrikoko defiziten titulizazio- eta kudeaketa-prozesuaren araubidea garatzen duten arauetan xedatzen denari jarraiki.

23. Energia berriztagarrietatik eta eragimen handiko kogenerazioko iturrietatik eratorritako elektrizitatearen jatorri-bermearen sistema kudeatzea.

24. Elektrizitate-merkatuaren amaierako prezioak argitaratzea, merkatuko operadorearen eta sistema-operadorearen informazioa oinarritzat hartuta.

25. Kontsumitzailea babesteari dagokionez, elektrizitatearen eta gas naturalaren hornidura-prezioak alderatzeko sistema kudeatzea, betiere enpresa merkaturatzaileek egindako eskaintzak oinarritzat hartuta, eta elektrizitate- eta gas-horniduraren eta txikizkako merkatuen prezioen konparazioa eta bilakaera jasotzen duten txostenak prestatzea.

26. Gas naturala erosteko enkanteak gainbegiratzen dituen erakunde gisa jardutea, azken baliabidearen tarifa, tanke eta gasbideen taloi-gasa, lur azpiko biltegiratzeen koltxoi-gasa eta oinarritzatko biltegiratzeen gaitasuna finkatzeko, arlo horretako araudian horrela xedatzen denean.

27. Gas-sistemaren instalazioetara sartzeko eskaera formalen eta sarbide-kontratuen eredu normalizatuak prestatzea, eta horiek Energia eta Meategi Politiken Zuzendaritza Nagusiari proposatzea, onespena eman diezaien edo aldaketak egin diezazkien.

28. Kontratatuta eta erabilgarri dagoen gaitasuna publiko egiteko eredu normalizatuak prestatzea eta horiek zehazteko metodologia lantzea, eta Energia eta Meategi Politiken Zuzendaritza Nagusiari proposatzea, onespena eman diezaien edo aldaketak egin diezazkien.

29. Instalazioen jabearen eta Sare Kudeatzaile Independentearen arteko kontratua onartzea; bertan, kontratuaren baldintzak eta bakoitzaren erantzukizunak xedatuko dira.

30. Hirugarrenak gas-instalazioetara sartzeko salbuespen-espeditentak izapidetzea.

31. Gas naturala merkaturatu ahal izateko, dagokion txostena eta proposamena igortzea, urriaren 7ko 34/1998 Legearen 80. artikuluan aurreikusten diren kasuetan.

32. Gas naturala eta energia elektrikoa merkaturatzen dituzten enpresek nahiz karga-kudeatzaileek eta merkatuko kontsumitzaile zuzenek baldintzak betetzen dituztela ikuskatzea.

33. Urtero, garraio-sare bakoitzaren murrizketen saldoa kalkulatzeko.

34. Honako kasu hauetan, dagokion txostena igortzea: instalazioak baimendu, aldatu edo ixteko espeditentetan; energia-plangintzarako prozesuan; ekonomia- edo lansari-araubideak onartzeko edo baimentzeko espeditentetan

(uharteetako nahiz penintsula kanpoko sistema elektrikoak, banaketa, garraioa, instalazio bereziak, eta abar); hornidurari eta galerari dagokionez; eta neurri elektrikoen arloan eskatzen denean, azaroaren 27ko 54/1997 Legean eta hori garatzen duen araudian xedatzen denari jarraiki. Era berean, garraioari eta banaketari dagokienez, jarduera horiei dagozkien ordainsarien proposamenak egingo ditu.

35. Gas naturalaren oinarrizko sareari dagozkion instalazioak baimendu, aldatu, transmititu edo ixteko espedienteen berri ematea, baita horien esleipen-prozesuei dagokienez ere. Horniduraren eta zerbitzuaren kalitatearen baldintzei buruzko txostenak igortzea; era berean, baldintza horiek bete ez izanaren ondorioak, Sistemaren Kudeaketa Teknikoaren Arauak eta horien Xehetasun Protokoloak, instalazioen ordainketa-kostuak eta instalazioen plangintza-prozesuak jakinaraziko dira, urriaren 7ko 34/1998 Legean eta hori garatzen duen araudian xedatzen denari jarraiki.

36. Errege-dekretuetan eta Industriako, Energiako eta Turismoko ministroaren aginduetan jasotzen diren arauak garatzeko eta betearazteko zirkularrak onartzea, horretarako gaitasuna ematen diotenean eta energiari buruzko araudia garatuz ematen direnean.

37. Lege edo errege-dekretu bidez esleitzen zaizkion gainerako eginkizunak betetzea.

8. artikulua. Posta-merkatua gainbegiratzea eta kontrolatzea.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak posta-merkatuaren funtzionamendu egokia gainbegiratu eta kontrolatuko du. Bereziki, honako eginkizun hauek beteko ditu:

1. Posta-araudiari eta sektorearen lehia askeari jarraiki, posta-zerbitzu unibertsala bermatzen dela egiaztatzea; horretarako, indarrean den legediak esleitzen dizkion eginkizunak eta eskumenak gauzatuko ditu, lege honetako hamaikagarren xedapen gehigarrian adierazten denari kalterik egin gabe.

2. Izendatutako operadorearen kostu-kontabilitatea eta posta-zerbitzu unibertsalaren kostu garbia egiaztatzea, eta zerbitzu horren eskaintzaren finantza-kargu bidegabearen zenbatekoa zehaztea, betiere posta-zerbitzu unibertsalari, erabiltzaileen eskubideei eta posta-merkatuari buruzko abenduaren 30eko 43/2010 Legearen III. tituluko III. kapituluan eta hori garatzen duen araudian xedatutakoaren arabera.

3. Posta-zerbitzu unibertsala finantzatzeko funtsa eta haren finantzaketaren mende dauden prestazio publikoak kudeatzea, abenduaren 30eko 43/2010 Legearen III. tituluko III. kapituluan eta hori garatzen duen araudian xedatutakoaren arabera.

4. Sarea eta beste posta-zerbitzu eta azpiegitura batzuk erabili ahal izateko indarrean den araudia aplikatzen dela gainbegiratzea eta kontrolatzea, abenduaren 30eko 43/2010 Legearen V. tituluan eta hori garatzen duen araudian xedatutakoaren arabera.

5. Posta-zerbitzu unibertsalaren prestazio-baldintzak kontrolatzea eta neurtzea, abenduaren 30eko 43/2010 Legearen III. tituluko II. kapituluan eta hori garatzen duen araudian xedatutakoaren arabera.

6. Promozio-eroldaren erabilera kudeatzea eta kontrolatzea, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 31. artikuluan definitzen denari eta erregelamenduetan zehazten denari jarraiki.

7. Posta-sektorean lan egiten duten entitateei zuzendutako zirkularrak ematea. Zirkular horiek lotesleak izango dira «Estatuko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen direnetik aurrera.

8. Abenduaren 30eko 43/2010 Legearen bigarren xedapen gehigarrian aurreikusten den txostena egitea, posta-zerbitzu unibertsala eskaintzeko baldintzen jarraipena egiteko.

9. Lege edo errege-dekretu bidez esleitzen zaizkion gainerako eginkizunak betetzea.

9. artikulua. Ikus-entzunezko komunikazioaren merkatua gainbegiratzea eta kontrolatzea.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak ikus-entzunezko komunikazio-merkatuaren funtzionamendu egokia gainbegiratu eta kontrolatuko du. Bereziki, honako eginkizun hauek beteko ditu:

1. Estatu-mailako estaldura duen telebista bidezko komunikazio-zerbitzuaren emaileek eta aplikatzekoa zaien gainerako zerbitzu-emaileek Europako obren urteko emisioari eta obra mota horien ekoizpenaren alde aurretiko finantzaketari dagozkion betebeharrak betetzen dituztela kontrolatzea, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Lege Orokorraren 5. artikuluan xedatzen den moduan.

2. Ikus-entzunezko komunikazioetan gardentasuna bermatzeko finkatu diren betebeharrak betetzen direla kontrolatzea, martxoaren 31ko 7/2010 Legearen 6. artikuluan xedatzen denari jarraiki.

3. Adingabeen eskubideak eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideak eraginkorrak direla bermatzeko helburuarekin finkatutako betebeharrak betetzen direla kontrolatzea, martxoaren 31ko 7/2010 Legearen 7 eta 8. artikuluetan zehazten denari jarraiki. Eginkizun horretarako, Batzordeak

jokoaren arloan eskumena duen ministerio-departamentuarekin koordinatuta egingo du lan, hark joko-jardueren publizitateari, babesari eta sustapenari dagokienez dituen eskumenetan, adingabeen eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideak eraginkor egiteko helburuarekin.

4. Ikus-entzunezko edukiak indarrean den antolamenduarekin eta autorregulazio-kodeekin bat datozela gainbegiratzea, martxoaren 31ko 7/2010 Legearen 9. artikuluan zehaztutako moduan.

5. Ikus-entzunezko edukiei buruzko autoerregulazio-kodeak betetzen direla bermatzea eta horiek indarrean den araudiarekin bat datozela egiaztatzea, martxoaren 31ko 7/2010 Legearen 12. artikuluan zehaztutako moduan.

6. Martxoaren 31ko 7/2010 Legearen 13. artikulutik 18. artikulura ezartzen diren ikus-entzunezko merkataritza-komunikazioak egiteko eskubideari dagozkion betebeharrak, debekuak eta mugak betetzen direla kontrolatzea.

7. Ikus-entzunezko edukiak berariaz kontrolatzeko, interes orokorreko gertakarien katalogoan gaineratutako edukiak igortzeko eta Espainiako ohiko futbol-txapelketen berariazko eskubideen salerosketarako esparruan finkatutako betebeharrak eta mugak betetzen direla kontrolatzea, martxoaren 31ko 7/2010 Legearen 19. artikulutik 21. artikulura aurreikusten den moduan, eta lege honetako hamabigarren xedapen gehigarrian zehazten denari kalterik egin gabe.

8. Estatuko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzu publikoa eskaintzen duten enpresek esleitu zaien zerbitzu publikoaren eginkizuna betetzen dutela egiaztatzea, eta horretarako esleitutako baliabide publikoak egokiak direla zaintzea, martxoaren 31ko 7/2010 Legearen IV. tituluan xedatzen denari jarraiki.

9. Espainiako lurraldean Europar Batasuneko beste estatu kide batean finkatzen diren titularren ikus-entzunezko zerbitzuak hartzeko askatasuna bermatzea. Zerbitzu horiek ikus-entzunezko programazioan adingabeak babesteko legedia modu larrian eta behin eta berriz urratzen dutenean, edota, arraza-, sexu-, erlijio- edo nazionalitate-arrazoia direla-eta, gorrotoa sustatzen dutenean, martxoaren 31ko 7/2010 Legearen 38. artikuluan aurreikusitako neurriak hartuko dira.

10. Espainiako legedian jasotzen diren zaintzarako neurriak hartzea, Europar Batasuneko beste estatu kide batean finkatutako telebista bidezko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzua eskaintzen duen enpresak bere zerbitzu osoa edo zati bat Espainiako lurraldera bideratzen duenean, eta Espainiako arau zorrotzenak saihesteko helburuarekin beste estatu kide batean finkatu denean; guztia ere martxoaren 31ko 7/2010 Legearen 39. artikuluan aurreikusitako prozedurarekin bat etorritik.

11. Zerbitzu publikoko edo ongintza-izaerako iragarkien izaera ez-publizitarioaz ebaztea, interesdunek hala eskatu ostean, martxoaren 31ko 7/2010 Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian zehaztutakoaren arabera.

12. Lege edo errege-dekretu bidez esleitzen zaizkion gainerako eginkizunak betetzea.

10. artikulua. Aireportu-tarifak gainbegiratzea eta kontrolatzea.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak honako eginkizun hauek gauzatu dituzte aireportu-tarifen esparruan:

1. Aireportu-kudeatzaileak egindako gardentasun- eta kontsulta-prozedura betetzen dela gainbegiratzea, Aire Segurtasunari buruzko uztailaren 7ko 21/2003 Legearen 98. eta 102. artikuluetan xedatzen denari jarraiki; horrez gain, aireportuko entitate kudeatzaileak egindako proposamena ez onartzea edo aireportuko entitate kudeatzaileak zehaztutako tarifa-aldaketak ez aplikatzea, dagokion moduan, proposamena edo tarifa-aldaketak egiteko orduan prozedura hori kontuan hartu ez bada.

2. Aireportu-kudeatzaileak aireportu-tarifak aldatzeko edo eguneratzeko aurkeztutako proposamenak uztailaren 7ko 21/2003 Legearen 101. artikuluan xedatutakoarekin bat datozeela gainbegiratzea.

3. Lege edo errege-dekretu bidez esleitzen zaizkion gainerako eginkizunak betetzea.

11. artikulua. Trenbide-sektorea gainbegiratzea eta kontrolatzea.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak trenbide-sektorearen funtzionamendu egokia gainbegiratu eta kontrolatu du. Bereziki, honako eginkizun hauek bete ditu:

1. Interes Orokorreko Trenbide Sarean eta haren trenbide-zerbitzuko guneetan eskaintza-aniztasuna babestea, eta zerbitzu horiek baldintza objektiboetan, gardenetan eta ez-diskriminatzaileetan eskaintzen direla bermatzea.

2. Trenbide-zerbitzuen merkaturan sartzeko baldintzei dagokienez, enpresen arteko berdintasuna bermatzea, bai eta hautagai guztien artekoa ere.

3. Trenbidearen sektoreko enpresek edo hautagaiek eta azpiegitura-administratzaileek kanon eta tarifei buruz egindako negoziazioak gainbegiratzea; eta, negoziazio horien emaitzak indarrean diren xedapenak urra ditzakeela aurreikusten duenean, esku hartzea.

4. Trenbide-kanonek eta -tarifek Trenbide Sektoreari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Legean xedatutakoa betetzen dutela eta diskriminatzaileak ez direla zaintzea.

5. Agintari eskudunek nahiz trenbidearen sektoreko enpresa edo hautagai interesdunek hala eskatzean, bidaiarien trenbide-garraiorako nazioarteko zerbitzuaren helburu nagusia bidaiariak Espainiako geltokien artean nahiz Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako geltokien artean garraiatzea dela bermatzea.

6. Trenbide-zerbitzu publikoko kontratuen oreka ekonomikoa kaltetu ote daitekeen zehaztea, bidaiarien trenbide-sektorearen nazioarteko zerbitzuak bidaiariak hartu eta utzi nahi diren Espainiako geltokietan eragiten duenean.

7. Sustapen Ministerioak hala eskatzean, interes publikoko trenbide bidezko garraio-zerbitzuak emateko baimentze-prozeduretan ebazpen-proposamenak informatzea.

8. Lege edo errege-dekretu bidez esleitzen zaizkion gainerako eginkizunak betetzea.

12. artikulua. Gatazkak ebaztea.

1. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak operadore ekonomikoek planteatutako gatazkak ebatziko ditu, honako kasu hauetan:

a) Komunikazio elektronikoen merkatuetan, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak operadoreen artean nahiz operadore eta beste entitate batzuen artean azaroaren 3ko 32/2003 Legean eta hori garatzen duen araudian jasotzen diren betebeharrekin lotuta sortutako gatazkak ebatziko ditu, lege horretan xedatzen denaren arabera, horiek sarbide- eta interkonexio-betebeharrez baliatzen direnean, lege horretako II. eranskinean sarbidearen eta interkonexioaren kontzeptuei ematen zaien definizioa kontuan hartuta. Bereziki, honako alderdi hauek ebatziko ditu:

1. Azaroaren 3ko 32/2003 Legearen 11. artikulua 3 eta 4. paragrafoetan aipatzen diren jardueren betebeharetatik eta lege horretako 13. artikuluan adierazten diren betebeharrak zehaztatutako sarbide-, interkonexio- eta elkarreragingarritasun-gatazkak.

2. Operadoreen arteko gatazkak, azaroaren 3ko 32/2003 Legearen 18. artikuluan adierazten diren telefono-zenbakiak mantentzeko gastuak ordaintzeko moduarekin lotuta daudenak.

3. Operadoreen arteko gatazkak, azaroaren 3ko 32/2003 Legearen 30. artikuluan adierazten diren erabilera partekatuko baldintzei buruzkoak.

4. Kontsultarako telefono-zerbitzuak eskaintzen dituzten erakundeen eta telefono-sare publiko finkoen operadoreen artean sortzen diren gatazkak, harpidedunen zenbakiari buruzko telefono bidezko kontsulta-zerbitzua

eskaintzeko baldintzak ezartzen dituen martxoaren 26ko CTE/711/2002 Aginduaren arabera.

5. Maiztasun-bandak erabili ahal izateko handizkako zerbitzua eskaintzeko baldintzen inguruan sortutako gatazkak, gizarte digitalaren garapenerako espektro irrati-elektrikoaren esparruko jardueri buruzko apirilaren 1eko 458/2011 Errege Dekretuaren 4.6 artikuluaaren arabera.

6. Ibiltaritzaren arloko gatazkak.

7. Komunikazio elektronikoaren sareak edo zerbitzuak eskaintzen dituztenen arteko mugaz gaindiko gatazkak, alderdi horietako bat Europar Batasuneko beste estatu kide batean dagoenean, azaroaren 3ko 32/2003 Legearen 14.2 artikuluan adierazten den moduan.

8. Ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak eskaintzen dituztenen artean multiple digitalaren kudeaketari buruz sortzen diren gatazkak.

b) Elektrizitatearen eta gasaren merkatuetan, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak honako gatazka hauek ebatziko ditu:

1. Hirugarrenek garraio-sareak eta, hala badagokio, banaketa-sareak erabili ahal izateko kontratuen inguruan planteatutako gatazkak, erregelamenduz ezarritako moduan.

2. Sistemaren eta garraioaren kudeaketa ekonomikoarekin eta teknikoarekin lotuta planteatzen zaizkion gatazkak, instalazio arteko loturak barne.

c) Aireportu-tarifen esparruan, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak aireportu-zerbitzuak eskaintzen dituzten sozietateek aireportu-tarifen maila edo sistema aldatzeko erabakien aurrean gauzatutako errekurtsoak ebatziko ditu, horiek aireportuko konpainia erabiltzaileak ordezkatzeko dituzten erakundeek jartzen dituztenean, edo, erregelamenduz garatzen den moduan, aireportua erabiltzen duten konpainiek banaka planteatutako gatazketak. Ebazpen horrek dagokion tarifa-aldaketa berrikusia hartuko du barne, zeinak emakidadunaren erabakiaren edukia ordezkatu duen, eta, hala dagokionean, baita tarifa-aldaketa berrikusiari dagokionez onargarritzat hartzen diren zerbitzu-kalitatearen mailak eta adierazleak ere.

Prozedura horretan, Batzordeak egiaztatuko du aireportu-zerbitzuak eskaintzen dituen sozietateak uztailaren 7ko 21/2003 Legearen 102. artikuluan zehaztutako prozedura betez eman duela erabakia, lege horretako 103.1 artikuluan jasotzen diren baldintzetara egokitzen dela, eta diskriminaziorik eza, objektibotasuna, eraginkortasuna, gardentasuna, kostuen berreskuratzea eta malgutasuna betetzen dituela, tarifek tarifa-aldaketa berrikusiak finkatutako mugak bete ditzaten.

Tarifa-aldaketa berrikusia ezartzeko orduan, Batzordea aireportu-tarifen gehiegizko gorabeherak saihesten saiatuko da; betiere, aurreko lerroketan zehaztutako printzipioekin bateragarria bada.

Uztailaren 7ko 21/2003 Legearen 102. artikuluan aurreikusitako kontsulta- eta gardentasun-prozeduran irregulartasunak hautematen badira, eta horiek tarifa-aldaketa berrikusteko aukera ematen ez badute, etorkizuneko kontsultetan hartu beharreko neurriei buruzko gomendioak egin ahal izango dira; besteak beste, erakunde ordezkariak ordezkatzeko ez dituzten konpainietara hedatzeko beharra.

d) Posta-merkatuan, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak honako alderdi hauek ebatziko ditu:

1. Abenduaren 30eko 43/2010 Legearen 48. artikuluan zehazten denaren arabera, posta-zerbitzu unibertsala eskaintzeko izendatu den operadorearen eta posta-zerbitzu unibertsalaren esparruan zerbitzuak eskaintzen dituzten beste posta-operadore batzuen artean sortutako gatazkak, posta-sarearen eta azpiegitura edo posta-zerbitzuen beste elementu batzuen sarbideari dagokienez.

2. Abenduaren 30eko 43/2010 Legearen 45.3 artikuluan aurreikusten den moduan, interesdunak hala eskatuz gero, posta-sarea erabili ahal izateko baldintzak finkatzea, baimen berezien titularrek eta izendatutako operadoreak negoziazioen ostean kontraturik egiten ez badute.

3. Abenduaren 30eko 43/2010 Legearen 49. artikuluan zehazten denaren arabera, posta-zerbitzu unibertsala eskaintzeko izendatuta ez dauden posta-operadoreen artean planteatutako gatazkak.

e) Ikus-entzunezko komunikazioaren merkatuan, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak honako gatazka hauek ebatziko ditu:

1. Ikus-entzunezko komunikazioaren merkatuetan esku hartzen duten agenteen artean sortutako gatazkak, Batzordearen eskumeneko gaietan.

2. Irrati- eta telebista-kateen lagapenari buruzko gatazkak, martxoaren 31ko 7/2010 Legearen 31. artikuluan zehazten den moduan.

3. Irrati bidezko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak eskaintzen dituzten erakundeak kirol-estadioetara eta -barrutietara sartzearekin lotuta sortzen diren gatazkak, martxoaren 31ko 7/2010 Legearen 19.4 artikuluan zehazten den moduan.

f) Trenbide-sektorean, trenbide-enpresek eta gainerako hautagaiek trenbide-azpiegituren administratzailearen, trenbide-enpresen eta gainerako hautagaien jardueraren inguruan egindako erreklamazioak aztertzea eta ebatzea dagokio

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari; honako alderdi hauei buruzko erreklamazioak izango dira:

1. Segurtasun-ziurtagiria eman eta erabiltzea, eta bertan jasotzen diren betebeharrak betetzea.
2. Sareari buruzko aitopenetan jasotzen diren irizpideak aplikatzea.
3. Gaitasuna esleitzeko prozesuak eta horien emaitzak.
4. Eskatzen zaizkien edo eska dakizkiekeen kanon eta tarifen zenbatekoa, egitura edo aplikazioa.
5. Beste trenbide-enpresa edo hautagai batzuek gauzatutako egintzen ondorioz sortutako diskriminazio-jokaerak, azpiegiturak edo horiekin lotutako zerbitzuak erabiltzeko orduan.
6. Salgaiak garraiatzeko nazioarteko trenbide-korridoreetan eskainitako zerbitzuak.

Erreklamazioak dagokion egintza edo erabakia hartzen den unetik kontatzen hasita hilabeteko epean aurkeztu beharko dira.

2. Aurreko paragrafoan aipatzen diren gatazkak konpontzeko orduan, Batzordeak salaketa oro ebatziko du, eta, alderdietako batek hala eskatzean, liskarra lehenbailehen konpontzeko ebazpena emango du; betiere, informazio guztia jasotzen duenetik kontatzen hasita hiru hilabeteko epean.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuetan emandako ebazpena loteslea izango da alderdientzat, lege honetako 36. artikuluan xedatutakoaren arabera egoki diren errekurtsioei kalterik egin gabe.

III. KAPITULUA

Antolaketa eta funtzionamendua

13. artikulua. Gobernu-organoak.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak gobernu-organo hauen bidez beteko ditu dagozkion eginkizunak:

- a) Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionaleko Kontseilua.
- b) Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionaleko lehendakaria, Kontseilukoa ere badena.

14. artikulua. Kontseilua.

1. Kontseilua Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari esleitutako eginkizunen gaineko erabakiak hartzen dituen organoa da, kide anitzekoa. Horrenbestez, ebazpenak onartzeko, kontsultei erantzuteko, lehia sustatzeko, arbitratzeko eta gatazkak konpontzeko eginkizunen inguruko erabakiak hartzen ditu; nolana ere, eginkizun horiek delegatu egin ditzake.

Kontseiluak ezin izango ditu honako ahalmen hauek beste inorengan delegatu: erakundearen aurrekontu-aurreproiektua, urteko txostena eta urteko nahiz zenbait urtetarako jarduera-planak onartzea, erakundearen helburuak eta lehentasunak zehazten dituena; barne-funtzionamendurako erregelamendua onartzea; zuzendaritzako kideak izendatzea; lege honetako 5.4 artikuluan aipatzen diren egintza eta xedapenei aurka egitea; eta, hala badagokio, arautzearen edo gainbegiratzearen xede den merkatuko agenteentzat izaera orokorreko zirkularrak eta komunikazioak onartzea.

2. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionaleko Kontseilua hamar kidek osatzen dute.

3. Kontseiluaren bileretara joan ahal izango dira, hitz egiteko eskubidea izango dutela, baina bozkatzekoa ez, Batzordeko zuzendaritzako kideak eta lehendakariak zehazten duen baina zuzendaritzako kidea ez den beste edonor, Kontseiluak ondorio horietarako adosten dituen irizpide orokorren arabera. Gobernuako kideek eta herri-administrazioetako goi-kargudunek ezin izango dute Kontseiluaren bileretara joan.

15. artikulua. Kontseiluko kideak izendatzea eta haien agintaldia.

1. Kontseiluko kideak, baita lehendakaria eta lehendakariordea ere, Gobernuak izendatuko ditu, errege-dekretu bidez, Ekonomiako eta Lehiakortasuneko ministroak egindako proposamenari jarraiki. Proposatutako horiek aitortutako ospea duten eta Batzordearen jarduera-esparruan gaitasun profesionala duten pertsonak izango dira, eta Diputatuen Kongresuko dagokion batzordearen aurrean agertu beharko dute. Kongresuak betoa jarri ahal izango dio proposatutako hautagaiaren izendapenari, batzorde eskudunaren bitartez eta gehiengo osoaren erabakiz; horretarako, hilabete naturaleko epea izango du, komunikazioa jasotzen duen egunetik kontatzen hasita. Epe horretan Kongresuaren aldetik berariazko adierazpenik jasotzen ez bada, izendapen horiek onartutzat joko dira.

2. Kontseiluko kideen agintaldia sei urtekoa izango da, eta ez dute berrautatuak izateko aukerarik izango. Kontseiluaren osaera bi urtez behin berrituko da, partzialki; beraz, Kontseiluko kide bat ere ez da karguan sei urte baino gehiago egongo.

16. artikulua. Kontseiluaren funtzionamendua.

1. Kontseiluak osoko bilkuran edota salan jarduten du. Kontseiluko kideek nahitaez joan beharko dute Kontseiluaren bileretara, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik.

Erabakiak bertaratutako botoen gehiengoz hartuko dira. Berdinketa gertatuz gero, bileraren buru denaren botoaz hartuko da erabakia.

2. Lehendakariaren proposamenari jarraiki, Kontseiluak kontseilaria ez den idazkari bat hautatuko du osoko bilkuran; idazkari horrek zuzenbidez lizentziatura edo hura ordezkatzeko duen titulua izan beharko du, eta, horrez gain, A1 azpitaldeko kidego bati dagokion karrerako funtzionarioa izan beharko du, Estatuko Administrazio Orokorren zerbitzura egongo dena. Idazkariak hitz egiteko eskubidea izango du, baina bozkatzekoa ez, eta hari egokituko zaio Kontseiluari zuzenbidearen arloko aholkuak ematea, aztergai diren alderdien legezketasunari buruzko informazioa ematea, eta kide anitzeko organoen idazkariari dagozkien eginkizunak gauzatzea. Erakundearen aholkularitza juridikoa Kontseiluko Idazkaritzaren esku egongo da.

3. Kontseiluak osoko bilkuretan eta saletan izango duen funtzionamenduaren araubidea barne-funtzionamendurako erregelamenduan garatuko da; erregelamendu hori osoko bilkuran onartuko da, 26.4 artikuluan xedatzen den moduan.

17. artikulua. Kontseiluko osoko bilkura.

1. Kontseiluaren osoko bilkura Kontseiluko kide guztiek osatuko dute, eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalako lehendakaria izango da bertako buru. Lehendakaria kanpoan edo gaixo egonez gero, lehendakariordeak ordezkatzeko du, eta hura ere ez dagoenean, antzintasun handiena duen kontseilariak, eta antzintasun bereko kontseilari bat baino gehiago egonez gero, urte gehien dituenak.

2. Kontseiluaren osoko bilkura behar bezala osatuta egon dadin, beharrezkoa izango da lehendakaria edo hura ordezkatzeko duen pertsona, idazkaria eta gutxienez bost kontseilari bertaratzea.

18. artikulua. Kontseiluko salak.

1. Kontseiluak bi sala ditu; bata lehiaren arloko gaietara xedatua, eta bestea araudia gainbegiratzera.

2. Sala bakoitza Kontseiluko bost kidek osatuko dute. Lehiari buruzko salaren burua Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalako lehendakaria izango da; araudia gainbegiratzeari buruzkoaren kasuan, lehendakariordea. Kontseiluak osoko bilkuran zehaztuko du sala bakoitzeko Kontseiluko kideen izendapena, eta, erregelamenduz zehaztutako moduan, kontseilarien sala arteko errotazio-araudia onartu eta argitaratuko du, errotazio horien aldizkakotasuna eta

hautaketa-irizpideak barne. Hala egitea justifikatzen duten ezohiko egoeretan, salen funtzionamendu egokia bermatzeko beste neurri batzuk hartu ahal izango ditu.

3. Lehendakariari dagokio salaren deialdia egitea, bere ekimenez edota kontseilarien gutxienez erdiak eskatuta.

4. Kontseiluko salak behar bezala osatuta egon daitezenean, beharrezkoa izango da lehendakaria edo hura ordezkatzeko duen pertsona, Kontseiluko idazkaria eta gutxienez bi kontseilari bertaratzea.

19. artikulua. Lehendakariaren eginkizunak.

1. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionaleko lehendakariak ondoko eginkizun hauek ditu:

a) Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, administrazio kide anitzeko organoen lehendakariari oro har ematen dizkien eskumenak gauzatzea.

b) Kontseilua biltzeko deia egitea, bere ekimenez edota kontseilarien gutxienez erdiak eskatuz gero, eta Kontseiluaren buru izatea.

c) Batzordearen lege- eta erakunde-ordezkaria izatea.

d) Batzordearen jarduerak modu egokian garatzen direla zaintzea; hots, ordenamendu juridikoaren arabera.

e) Batzordearen antolamenduaren ordena eta gobernu egokia mantentzea.

f) Batzordearen jarduera sustatzea eta hari dagozkion eginkizunak betetzen direla bermatzea. Bereziki, helburuak eta lehentasunak zehazten diren urteko edo zenbait urterako jarduera-planak proposatzea.

g) Batzordeko kideen buru izatea, legedi zehatzak esleitutako eskumenak kontuan hartuta.

h) Batzordearen unitateak zuzentzea, koordinatzea, ebaluatzea eta gainbegiratzea, Kontseiluaren eginkizunei kalterik egin gabe; eta, bereziki, Batzordearen unitateen funtzionamendu egokia koordinatzea, Kontseiluko idazkariak lagunduta.

i) Esleipen Ministerioaren titularrari Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionaleko Kontseiluan hutsik gelditu diren postuak jakinaraztea.

j) Batzordearen aurrekontuak betearazteko egintzak onartzea.

k) Batzordearen kontratazioan dagozkion eskumenak gauzatzea.

- l) Kontseiluak eskuordetzen dizkion eginkizunak gauzatzea.
- m) Batzordearen kontuen berri ematea, azaroaren 26ko 47/2003 Legearen arabera.
- n) Parlamentuaren aurrean agertzea, lege honetan aurreikusitako moduan.
- o) Lehiaren Defentsako Kontseiluko lehendakaria izatea.
- p) Barne-funtzionamendurako erregelamenduak edo 26. artikuluan adierazten den Estatutuak esleitzen dizkion gainerako eginkizunak gauzatzea.

2. Lehendakaria kanpoan edo gaixo dagoenean, lehendakariordeak ordezkatzeko du haren eginkizunetan.

20. artikulua. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalako Kontseiluaren eginkizunak.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalako Kontseilua lege honetan lehiaren inguruan xedatutako alderdiak ebazteko, aholku emateko eta sustatzeko erabakiak hartuko dituen organoa da, arbitraje-lanak egingo dituena eta gatazkak konponduko dituena. Zehazki, honako eskumen hauek izango ditu organoak:

1. Lege honek eta indarrean den gainerako legediak Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari esleitzen dizkioten gaiak ebaztea eta horien irizpena ematea.
2. Sektoreko legedian, uztailaren 3ko 15/2007 Legean eta hori garatzen duten arauetan aurreikusitako zehapen-prozedurak ebaztea, Estatuko Administrazio Orokorreko beste organo batzuei ez dagozkienean.
3. Uztailaren 3ko 15/2007 Legearen aplikazio-eremuan sartzen diren kontzentrazioak kontrolatzeko espedienteak Europako Batzordera bidaltzeko eskatzea eta erabakitzea, enpresen arteko kontzentrazioak kontrolatzeari buruzko Kontseiluaren urtarrilaren 20ko 139/2004 Erregelamenduaren (EE) 9 eta 22. artikuluetan aurreikusitako moduan.
4. Kontzentrazio ekonomiko baten gauzatzea bertan behera uzteko betebeharra indarrrik gabe uztea erabakitzea, uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 9.6 artikuluari jarraiki.
5. Debekatutako jokaeren eta kontzentrazioen arloko ebazpenak eta erabakiak betetzen diren edo ez ebaztea.
6. Lege honetako 30.3 artikuluan aurreikusitako komunikazioak egitea, eta uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 6. artikuluan aurreikusitako aplikaezintasun-adierazpenak onartzea.

7. Lege honetan aurreikusitako zirkularrak onestea.
 8. Espedienteak bidera daitezela eskatzea.
 9. Lege honetako 5.2 artikuluko a), b) eta c) hizkietan aipatzen diren txostenak prestatzea, baita sektore ekonomikoei eta lehiari buruzko txostenak eta azterlanak, eta laguntza publikoen arloko txostenak ere.
 10. Lege honetako 5.4 artikuluan aipatzen diren egintza eta xedapenak aurkaratzeko erabakia hartzea.
 11. Bere barne-funtzionamendurako erregelamendua onartzea; bertan, bere administrazio-jarduna eta bere zerbitzuen antolamendua zehaztuko dira.
 12. Lehendakariaren, lehendakariordearen eta kontseilarien errefusatzeak eta diziplina-zentzarazpenak ebatzea, eta euren eginkizunak betetzeko gauza diren eta ez-betetze larriak erabakitzea.
 13. Zuzendaritzako kideak izendatzea eta kargugabetzea, Kontseiluko lehendakariaren proposamenari jarraiki.
 14. Idazkaria izendatzea eta kargugabetzea, Kontseiluko lehendakariaren proposamenari jarraiki.
 15. Aurrekontu-aurreproiektua onartzea eta erakundearen kontuak zehaztea.
 16. Erakundearen urteko txostena onartzea, baita jardueren urteko edo zenbait urtetarako planak ere; horietan, helburuak eta lehentasunak zehaztuko dira.
21. artikulua. Osoko bilkuraren eta salen eskumenak.
1. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalako Kontseiluaren osoko bilkurak honako alderdi hauek aztertuko ditu:
 - a) Lege honetako 14.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Kontseiluari eskuordetu ezin zaizkion gaiak, 5.4 artikuluan aipaturiko egintzak eta xedapenak aurkaratzea salbu.
 - b) Lehiaren arloko Salaren eta Araudia Gainbegiratzeko Salaren artean irizpide-desadostasunak sortzen dituzten gaiak.
 - c) Gainbegiratzearen mende dauden jardueren edo merkatuen funtzionamendu lehiakorrean bereziki eragiten dutelako, osoko bilkurak bere gain hartzen dituen gaiak, sei botoren gehiengoz, lehendakariak edo Kontseiluko hiru kidek hala proposatu ostean.
 2. Osoko bilkurari espresuki esleitu ez zaizkion gaiak salek aztertuko dituzte. Erregelamendu bidez zehaztuko da, gai bat aztertzea sala horietako bati

dagokionean, zein kasutan eman beharko dion besteari horren berri. Ondoko kasuotan, txosten bat prestatu beharko dute:

a) Lehiari buruzko Salak lege honetako 6. artikulutik 11. artikulura aurreikusitako prozeduretan, prozedura horiek merkatuen lehiakortasun eraginkorraren irekierari, gardentasunari, funtzionamendu egokiari eta existentziari eragiten dietenean.

b) Araudia Gainbegiratzeko Salak, lege honetako 5. artikuluan lehia defendatzeko aurreikusten diren prozeduren kasuan, 6. artikulutik 11. artikulura jasotako sektoreekin lotuta daudenean.

22. artikulua. Kontseiluko kideen eginkizunak eta bateraezintasunak.

1. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalako Kontseiluko kideek arduraldi eskusiboa izango dute beren eginkizunetan, eta Estatuko Administrazio Orokorreko goi-karguduntzat hartuko dira.

2. Kontseiluko kideek ezin izango dituzte, banaka, Batzordearen zuzendaritzari dagozkion Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren esparru zehatzetako zuzendaritza-eginkizunak beren gain hartu.

3. Kontseiluko kideek Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunentzat zehazturiko bateraezintasun-erregimena bete beharko dute, Gobernuak kideen eta Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen interes-gatazkak arautzen dituen apirilaren 10eko 5/2006 Legean eta hori garatzen duten xedapenetan jasotzen den moduan.

4. Kargua utzi eta hurrengo bi urteetan, lehendakariak, lehendakariordeak eta kontseilariak ezin izango dute Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren jarduerarekin eta sektore arautuekin zerikusia duen lanbiderik izan.

Muga hori dela-eta, Batzordeko lehendakariak, lehendakariordeak eta kontseilariak, uko egiteagatik, agintaldia amaitzeagatik edo eginkizunak burutzeko ezintasun iraunkorragatik uzten dutenean kargua, hilero konpentsazio ekonomiko bat jasotzeko eskubidea izango dute. Kargua uzten duten hilaren hurrengotik hasiko dira konpentsazioa jasotzen, eta karguan zenbat hilabete eman duten, hainbeste hilabetetan eskuratuko dute, baina gehienez ere bi urtez. Zenbatekoa, berriz, jasoko den epealdian indarrean dagoen aurrekontuan kasuan kasuko karguarentzat zehaztutako ordainsari guztien ehuneko 80ren hamabirena izango litzateke, hilero.

Ez dute aipatutako zenbateko hori jasoko sektore publiko nahiz pribatuan lanpostu, kargu edo jarduera ordainduen bat gauzatuz gero, aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren 1. artikuluan aurreikusten den moduan.

23. artikulua. Kargua uzteko arrazoiak.

1. Kontseiluko kideek kasuotan utziko dute beren kargua:

a) Uko egitean eta Gobernuak uko hori onartzean.

b) Agintaldia amaitzean.

c) Bateriaezintasuna sortzean.

d) Dolozko delituagatik kondenatua izatean.

e) Ezintasun iraunkorra sortzean.

f) Gobernuak hala erabakitzean, kontseilariak bere betebeharrak modu larrian ez betetzeagatik edota bateraezintasunaren, interes-gatazken eta erreserba-beharren obligazioak ez betetzeagatik. Gobernuak Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioko titularrak espedientea abiaraztea agindu ondoren hartuko du erabaki hori, eta kontseilariari dagokion zehapen-araudiari kalterik egin gabe.

2. Kontseilari jakin batek agintaldian zehar bere karguari uko egiten badio, ordezko bat izendatuko da agintaldia amaitzeko falta zaion denbora horretarako. Kontseilariak izendatu zutenetik lau urte betetzen direnetik aurrera egiten badio uko bere karguari, aipatutako muga ez da aplikatzekoa izango, eta ordezkoa oro har aurreikusitako sei urteko eperako izendatuko da.

3. Lehen paragrafoko a) eta b) hizkietan jasotzen diren kasuetan, Kontseiluko kideek beren eginkizunak betetzen jarraituko dute, dagokien kargua uzteari dagokion errege-dekretua «Estatuko Aldizkari Ofizialean» argitaratu arte.

24. artikulua. Informatu beharra eta inpartzialtasunez jarduteko bermeak.

1. Lehendakariak, lehendakariordeak, kontseilariak, zuzendaritzako kideak eta langileak, edo haien ordezkariak, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak gainbegiratzeko duen merkatu edo sektore batean zerbitzu profesionalak eskaini dituztenean, Kontseiluari jakinarazi beharko diote harreman profesionalak gordetzeko edo berreskuratzeko, kalte-ordainak jasotzeko edo ondare-edukia duen beste edozein onura izateko duten eskubide edo ahalmen oro. Kontseiluko kideen kasuan, egoera hori publiko egin beharko da.

2. Independentzia- eta objektibotasun-printzipioak aplikatuz, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak bermatuko du bertako kideek beren jardura eta prozeduretan arau objektiboak eta lehenetsiak kontuan hartuz esku hartzen dutela, eta dagozkien erantzukizunak modu egokian gauzatzen dituztela.

25. artikulua. Zuzendaritza-organoak.

1. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak lau instrukzio-zuzendaritza izango ditu; horiek artikulua honetan zehaztutako eginkizunak izango dituzte, baita Kontseiluak eskuordetzen dizkienak ere, lege honetako 20. artikulua arabera, organo horri esleitutako arauak garatzeko eginkizuna eta ebazpen- eta irizpen-eginkizunak izan ezik:

a) Lehia Zuzendaritza; lege honetako 5. artikuluan aurreikusitako eginkizunen inguruko espedienteak bideratu beharko ditu.

b) Telekomunikazioen eta Ikus-entzunezko Sektorearen Zuzendaritza; lege honetako 6, 9 eta 12.1.a) eta e) artikuluetan aurreikusitako eginkizunen inguruko espedienteak bideratu beharko ditu.

c) Energia Zuzendaritza; lege honetako 7 eta 12.1.b) artikuluetan aurreikusitako eginkizunen inguruko espedienteak bideratu beharko ditu.

d) Garraioen eta Posta Sektorearen Zuzendaritza; lege honetako 8, 10, 11 eta 12.1.c), d) eta f) artikuluetan aurreikusitako eginkizunen inguruko espedienteak bideratu beharko ditu.

2. Aurreko paragrafoan adierazitako zuzendaritzek Kontseiluarekiko independentziaz gauzatuko dituzte beren instrukzio-eginkizunak.

3. Izapidetze-zuzendaritzen titularrek arduraldi eskusiboan gauzatuko dituzte beren eginkizunak, eta apirilaren 10eko 5/2006 Legean eta hori garatzen duten xedapenetan goi-kargudunentzat zehaztutako jardueren bateraezintasun-araudia bete beharko dute.

Zuzendaritzako kideak izendatzeko eta kargugabetzeko, lege honetako 26.3 artikuluan xedatutakoa hartuko da kontuan.

26. artikulua. Estatutu Organikoa eta barne-funtzionamendurako erregelamendua.

1. Gobernuak, errege-dekretu bidez, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Estatutu Organikoa onartuko du.

2. Estatutu Organikoak Kontseiluari dagozkion gaiak osoko bilkuraren eta salen artean nola banatu zehaztuko du; horrez gain, instrukzio-zuzendaritzen eginkizunak eta barne-egitura finkatuko ditu, baita gainerako erantzukizun-esparruak ere, horien izendapena edozein dela ere, eta zuzendaritza-kideak izendatuko ditu.

3. Zuzendaritzako kideen eskumena izango da egokitzen zaien esparruan esleitu zaizkien eginkizunak zuzentzea, antolatzea, sustatzea eta betetzea, Kontseiluaren eta Batzordeko lehendakariaren aginduak betetz; hori guztia,

zehapen-prozeduretako instrukzio- eta ebazpen-eginkizunen arteko bereizketari kalterik egin gabe.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionaleko Kontseiluak izendatuko eta kargugabetuko ditu Instrukzio Zuzendaritzaz besteko erantzukizun-esparruetako zuzendaritzako kideak, lehendakariaren proposamenari jarraiki. Hautaketa deialdi publiko bidez egingo da, berdintasunean, merezimenduan eta gaitasunean oinarritutako prozeduren bitartez, eta, betiere, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 13.2 artikuluan eta lege honetako 31.5 artikuluan zehazten denari jarraiki.

4. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionaleko Kontseiluko osoko bilkurak erakundearen barne-funtzionamendurako erregelamendua onartuko du; bertan, honako alderdi hauek zehaztuko dira, betiere Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Estatutu Organikoan xedatutakoa errespetatuz: organoen jarduera, langileen antolaketa, informazioaren gardentasunerako eta erreserbarako araubidea, eta, bereziki, Kontseiluaren funtzionamendua, osoko bilkuren eta salen deialdi eta saiotarako araubidea, eta gaiak aztertu eta ebazteko barne-prozedura. Erregelamendua onartzeko, Kontseiluko gutxienez sei kideren aldeko botoa beharko da.

IV. KAPITULUA

Jarduera-araubidea eta ahalak

27. artikulua. Ikuskatzeko ahalmenak.

1. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionaleko karrerako funtzionarioak, dagokion zuzendariaren baimena jaso dutenean, agintaritzaren agenteak izango dira, eta enpresetan zein enpresen elkarteetan behar beste ikuskapen egiteko ahalmena izango dute, lege hau behar bezala aplikatu ahal izateko.

2. Helburu horretarako gaitutako langileek ondoko ahalmen hauek izango dituzte ikuskapenean:

a) Enpresen edo enpresen elkarteetan edozein lokal, lursail edo garraiobidetara sartzeko ahalmena, baita enpresarietan, administratzaileen eta enpresetako beste langile batzuen etxebizitzetara sartzeko ahalmena ere. Era berean, lege honetan aipatzen diren jarduerak garatzen dituztenen edo operadoreen zerbitzuei edo jarduerari atxikirik dauden elementuak kontrolatu ahal izango dituzte, baita instalatzen edo ustiatzen dituzten sareen eta izan edo mantendu behar dituzten dokumentu guztien kasuan ere.

b) Kasuan kasuko jardueraren inguruko liburuak, erregistroak eta dokumentuak egiaztatzeke ahalmena, horien euskarri materiala edozein dela ere, programa informatikoak eta artxibo magnetikoak, optikoak edo bestelakoak barne.

c) Liburu edo agiri horien kopiak edo laburpenak edozein formatutan egiteko edo eskuratzeko ahalmena.

d) Aurreko b) hizkian aipatutako liburu edo agiriak gehienez ere hamar egunez atxikitze ahalmena.

e) Enpresaren lokal guztiak, liburuak edo agiriak eta gainerako ondasunak ikuskatzeko eta behar beste denboraz nahiz beharrezkoa den neurrian zigilatze ahalmena.

f) Enpresaren edozein ordezkari edo langileri edo enpresen elkartearen edozein ordezkari edo kideri ikuskatzearekin zerikusia duten gertakari edo agiriei buruzko azalpenak eskatzeko ahalmena, eta emandako erantzunen berri jasotzekoa.

a) eta e) hizkietan aipatzen diren ahalmenak gauzatzeko, aldez aurretik, kaltetuaren berariazko baimena beharko da, eta, halakorik ezean, epailearen baimena.

3. Enpresek eta enpresen elkarteek ezin izango diete uko egin organo eskudunak baimendutako ikuskatze-lanei.

4. Enpresak edo enpresen elkarteak ikuskapen bati uko eginez gero, edo uko egiteko arriskua dagoela irizten bada, Batzordearen organo eskudunak epailearen baimena eskatu beharko dio administrazioarekiko auzien epaitegiari, ikuskatzean oinarritzko eskubideak murrizten baldin badira, eta epaitegiak gehienez ere 48 orduko epea izango du ebazteko. Aginte publikoek beharrezko babesa eta laguntza eskainiko diete Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalako langileei, ikuskapena egin dezaten.

5. Ikuskapena egiteaz arduratzen den karrerako funtzionarioak jardueren akta egingo du. Akta horrek dokumentu publikoaren izaera izango du, eta ekintzak frogatutzat emango ditu, aurkakoa egiaztatu ezean.

6. Ikuskapenaren bidez lortutako datuak eta informazioa Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak bakarrik erabili ahal izango ditu, lege honetan eta uztailaren 3ko 15/2007 Legean aurreikusitako helburuak betetzeko.

28. artikulua. Informazio-eskaerak, isilpean mantentzeko beharra eta Estatuko erregistroetan sartzeko eskubidea.

1. Pertsona fisiko edo juridiko orok eta herri-administrazioetako organo nahiz erakundeek nahitaez lagundu beharko diote Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari lehia askea babesteko eginkizunean. Batzordeak hala eskatuz gero, eskuartean dituzten datuak eta informazio guztia eman beharko dizkiote, adierazi zaien epearen barruan, Batzordearen eginkizunak garatzeko beharrezkoa denean.

Batzordeak arrazoitu egin beharko ditu informazio-eskaerak, eta helburuarekiko proportzionatuak izan beharko dira. Xede horrekin egindako eskaeretan, Batzordeak modu xehean eta zehatzean adieraziko du zer-nolako informazioa eskuratu nahi duen, zertarako behar duen, eta zehazki zein erabilera emango dion.

2. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak bere eginkizunetarako eskuratzen dituen datuek eta informazioak izaera konfidentziala izango dute, merkataritza-, industria- edo estatistika-sekretuak babestutako gaiak izateagatik, lege honetako 5. artikuluko 1. paragrafoaren c), d), e) eta f) hizkietan aurreikusten diren kasuetan salbu. Datu horiek eskumena duen ministerioari, autonomia-erkidegoei, Europako Batzordeari eta Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetako agintariei bakarrik eman ahal izango zaizkie, beren eskumenen esparruan; baita auzitegiei ere, dagozkien prozesu judizialeetan.

Datu horien berri duenak isilpean mantendu beharko ditu. Isilpeketasunaren betebeharra urratzea diziplinazko arau-hauste oso larria izango da, dagozkion erantzukizun penal eta zibilei kalterik egin gabe.

3. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak sarbidea izango du lege honen aplikazio-esparruan sartzen diren sektoreak arautzen dituen Estatuko legedian aurreikusitako erregistroetara. Era berean, Estatuko Administrazio Orokorrak Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren datu-baseetan sartu ahal izango du.

Aurreko paragrafoan aipatzen den sarbide elektronikoa errazteko, beharrezko informatika-garapenak egingo dira; hartara, datu-baseetan eta erregistroetan jasotako informazioa kontsultatu ahal izango da, informazioaren segurtasunari, konfidentziasunari eta osotasunari eutsita.

29. artikulua. Zehatzeko ahala.

1. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak ondoko arau hauetan xedatutakoaren arabera gauzatuko ditu ikuskatzeko eta zehatzeko ahalak: uztailaren 3ko 15/2007 Legearen IV. tituluko II. kapitulua; martxoaren 31ko 7/2010 Legearen VI. titulua; Telekomunikazioei buruzko azaroaren 3ko 32/2003 Lege Orokorreko VIII. titulua; azaroaren 27ko 54/1997 Legearen X. titulua; urriaren 7ko 34/1998 Legearen VI. titulua; abenduaren 30eko 43/2010 Legearen VII. titulua; eta Trenbide Sektoreari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Legearen VII. titulua.

2. Zehatzeko ahalari dagokionez, behar bezala bereizi beharko dira instrukzio-fasea eta ebazpen-fasea; lehenengoa, gaiaren arabera egoki den zuzendaritzako langileen esku egongo da, eta, bigarrena, Kontseiluaren esku.

3. Zehatzeko ahalaren prozedura lege honetan zehazten denaren arabera gauzatuko da, bai eta 1. paragrafoan aipatutako legeetan xedatutakoaren arabera ere. Aurreko arauetan aurreikusten ez den guztirako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea eta hori garatzen duen araudia beteko dira. Lehia defendatzearen arloko zehapen-prozedura uztailaren 3ko 15/2007 Legean aurreikusitako xedapen zehatzek arautuko dute.

4. Prozeduraren ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri ahal izango da.

30. artikulua. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren zirkularrak, informazio-zirkularrak eta komunikazioak.

1. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak gainbegiratzea dagokion sektoreekin lotuta onartzen diren legeak, errege-dekretuak eta ministro-aginduak garatzeko eta betearazteko xedapenak eman ahal izango ditu, horretarako berariazko ahalmena ematen diotenean. Xedapen horiek Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren zirkular izango dira.

Zirkularrak, «Estatuko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen direnetik aurrera, lotesleak izango dira haren aplikazio-eremuko subjektuentzat.

Zirkularrak prestatzeko prozeduran, entzun egingo zaie haien bidez eragindako eskubide eta interes legitimoen titularrei, zuzenean edota horiek multzokatzen edo ordezkatzan dituzten lege bidez aitortutako erakundeen bitartez, horien helburuek zirkularraren xedearekin lotura zuzena dutenean, eta, oro har, herritarren parte hartzea sustatuko da.

2. Aurreko paragrafoan zehaztutakoari kalterik egin gabe, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak informazio-eskaerak egin ahal izango dizkie, aldizka, eragindako subjektuei. Eskaera horiek informazio-zirkular bidez egingo dira.

Informazio-zirkularrak arrazoituta egon beharko dira, eta lortu nahi den helburuarekiko proportzionatuak izan; bestalde, informazioaren konfidentzialtasuna bermatuko dute, lege honen 28. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Zirkular horietan, modu xehean eta zehatzean adieraziko dira eskatu nahi den informazioaren edukia eta zertarakoa, eta harekin zer egin nahi den argi eta garbi zehaztuko da.

3. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak bere jardueran gidari dituen printzipioak zehazten dituzten komunikazioak onartu ahal izango ditu.

31. artikulua. Langileen araubide juridikoa.

1. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionaleko langileak funtzionarioak edota lan-kontratudunak izango dira, Estatuko Administrazio Orokorrean zehaztutako moduan, erregelamenduz jasotzen denari eta artikuluko honetako 4. paragrafoan xedatzen denari jarraiki.

2. Funtzionarioei Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionarioei aplikatzen zaizkien xedapenak aplikatuko zaizkie.

Funtzionarioen lanpostuak hornitzeko, Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionarioei aplikatzekoa den funtzio publikoari buruzko araudian zehaztutako hornidura-prozedurak bete beharko dira.

3. Lan-kontratua duten langileei ondoko arau hauek aplikatuko zaizkie: Langileen Estatutuaren testu bategina (martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onartua), ohiko araudi aplikagarria eta apirilaren 12ko 7/2007 Legetik espresuki aplikatzekoak zaizkien arauak.

Lan-kontratudun langileak hautatzeko, deialdi publikoa egingo da, Estatuko Administrazio Orokorreko enplegu publikoaren eskaintzaren bidez, eta berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak beteko dira, baita desgaitasuna duten pertsonak enplegu publikora sartu ahal izateko printzipioa ere.

4. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak lanpostuen zerrenda bat izango du, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak onartu beharrekoa; bertan, besteak beste, funtzionario publikoek bete beharreko lanpostuak zehaztuko dira, horiek Estatuaren eta herri-administrazioen interes orokorren babeserako eta ahalmen publikoen exekuziorako partaidetza zuzena nahiz zeharkakoa eragiten duten funtzioak direnean.

5. Lege honetako 25. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, haien erantzukizun, gaitasun tekniko edo garrantzi berezia dela-eta zuzendaritza-izaera duten lanpostuak zehaztuko dira Estatutu Organikoan. Zuzendaritzako kideak A1 azpitaldeko karrerako funtzionarioak izango dira; nolana ere, ezohiko kasuetan, lanpostu horiek lan-araubidearen bidez bete ahal izango dira, goi-zuzendaritzako kontratuen bitartez, eta, betiere, apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 9.2 artikulua esparruko ahalak edo eginkizun publikoak esleitu ez bazaizkie. Lanpostu horiek lege honetako 26.3 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki beteko dira.

Goi-zuzendaritzako kontratuetan, lan-merkatua erreformatzeko premiazko neurriei buruzko uztailaren 6ko 3/2012 Legearen zortzigarren xedapen gehigarrian zehazten dena aplikatuko da, baita enpresa-sektore publikoko arduradun eta zuzendari nagusien ordainsari-sistema arautzen duen martxoaren 5eko 451/2012 Errege Dekretuan xedatzen dena ere.

6. Zuzendaritzako langileen nahiz gainerako langileen ordainsari-baldintzak zehaztu eta aldatzeko, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren alde aurretiko aldeko txostena beharko da. Zuzendaritzako langileei dagokienez, martxoaren 5eko 451/2012 Errege Dekretuan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan xedatutakoa bete beharko da; aurrekontuei buruzkoetan jasotakoa, batez ere.

Era berean, Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak langile-gastuen bilakaerari eta giza baliabideen kudeaketari buruzko kontrol zehatzak egingo ditu aldizka, xede horretarako zehaztu diren irizpideei jarraiki.

32. artikulua. Kontratazio-araubidea.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak egindako kontratuek sektore publikoaren kontrataziorako legedian xedaturikoa bete beharko dute, eta batzordeko lehendakaria izango da kontratazio-organoa.

33. artikulua. Ekonomia, finantza eta ondarearen arloko araubidea.

1. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak ondare propioa izango du; Estatuko Administrazio Orokorraren ondarearekiko independentea.

2. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak ondorengo ondasun eta baliabide ekonomikoak izango ditu bere eginkizunak betetzeko:

a) Estatuko Aurrekontu Orokorren kontura urtero esleitzen zaizkion kopuruak.

b) Bere ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak, eta horietatik sortutako produktuak eta errentak.

c) Legez esleitu ahal zaizkion beste batzuk.

3. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren kontrol ekonomiko eta finantzarioa Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrean eta Kontuen Auzitegiari buruzko maiatzaren 12ko 2/1982 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera egingo da.

34. artikulua. Aurrekontua, kontabilitate-araubidea eta kontrol ekonomiko eta finantzarioa.

1. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak aurrekontu-aurreproiektu bat prestatu eta onartuko du urtero, eta haren kredituek izaera mugatzailea izango dute. Aurreproiektu hori Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioari bidaliko dio, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren bitartez, hark azaroaren 26ko 47/2003 Legean aurreikusitakoaren arabera izapidetu dezan.

2. Aurrekontu horretako kredituen aldakuntzen eta loturen araubidea Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Estatutu Organikoan zehaztutakoa izango da.

3. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalako lehendakariari dagokio gastuak onartzea, ordainketak agintzea eta erakundearen kontuak ematea, azaroaren 26ko 47/2003 Legean xedatzen denaren arabera.

4. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak azaroaren 26ko 47/2003 Legearen arabera formulatuko eta emango ditu kontuak, eta, betiere, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrean eta hori garatzen duten arauetan jasotzen diren kontabilitatearen esparruko arauak eta printzipioak betez. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak kontabilitate analitikorako sistema bat izango du, bere jardueraren inguruko kostuei buruzko informazioa eskainiko duena, erabakiak modu egokian eta eraginkorrean hartu ahal izateko.

5. Kontuen Auzitegiaren Lege Organikoak auzitegi horri esleitzen dizkion eskumenei kalterik egin gabe, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa Estatuko Administrazioako Kontu-hartzailetza Nagusiaren kontrolaren mende egongo da, azaroaren 26ko 47/2003 Legean zehazten den moduan. Etengabeko kontrol finantzarioa Batzorde Nazionalako Kontu-hartzailetza Delegatuak gauzatuko du, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiaren mendekotasun funtzionalaren pean.

35. artikulua. Laguntza juridikoa.

Laguntza juridikoa Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari zuzenbidearen arloko aholkularitza, ordezkartza eta defentsa ematean datza, eta Estatuko Zerbitzu Juridikoa arduratuko da horretaz, zeinaren zuzendaritza-zentro gorena Estatuko Abokatutza Orokorra - Zerbitzu Juridikoaren Zuzendaritza den. Horretarako, dagokion hitzarmena egingo dute erakunde biek, Estatuari eta herri-erakundeei laguntza juridikoa emateari buruzko azaroaren 27ko 52/1997 Legean eta hori garatzen duen araudian aurreikusten den moduan.

36. artikulua. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren egintzen, erabakien eta ebazpenen aurkako errekurtsioak.

1. Batzordeko organoen egintzen eta erabakien aurka, lehendakariarenak eta Kontseiluarenak direnean salbu, administrazio-errekurtsioa jarri ahal izango da, azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatzen den moduan.

Nolanahi ere, uztailaren 3ko 15/2007 Legean oinarrituta emandako egintzei dagokienez, lege horretako 47. artikuluan aipatzen direnen aurka soilik jarri ahal izango da errekurtsioa.

2. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalako lehendakariak eta Kontseiluak osoko bilkuran nahiz saletan onartutako egintza eta ebazpenek amaiera emango diote administrazio-bideari, eta ezin izango da haien aurka berraztertzeke errekurtsorik jarri; horrenbestez, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan soilik aurkaratu ahal izango dira.

V. KAPITULUA

Gardentasuna eta erantzukizuna

37. artikulua. Jardueren publizitatea.

1. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak publiko egingo ditu onartutako xedapen, ebazpen, akordio eta txosten guztiak, haien arautzen dituzten legeen arabera, interesdunei behar bezala jakinarazi ostean eta, hala badagokio, edukiaren inguruko isilpeko alderdiak ebatzi ondoren, aurrez abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 3.a) artikuluan aipatzen diren datu pertsonalak bereizita, arau-hausleen izena salbu. Bereziki, honako hauek egingo ditu publiko:

a) Batzordearen eta haren organoen antolakuntza eta eginkizunak, Kontseiluko eta zuzendaritzako kideen curriculum vitae barne.

b) Kontseiluko bileretan hartutako erabakien zerrenda.

c) Kontseiluaren erabakiek oinarrian dituzten txostenak.

d) Urteko jarduera-oroitidazkia; bertan, honako hauek jasoko dira: urteko kontuak, antolaketa-egoera, langileen inguruko informazioa, Batzordearen jarduerak, eta lortu nahi diren eta dagoeneko lortu diren helburuak. Txosten hori Diputatuen Kongresuko dagokion batzordeari eta Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren titularrari bidaliko zaie.

e) Urteko txosten ekonomiko sektorialak; horietan, sektoreko lehiaren egoera, sektore publikoaren jarduera eta sektorearen bilakaera-ikuspegiak aztertuko dira, ministerio-departamentuek egin ditzaketen txostenei kalterik egin gabe. Txosten horiek Diputatuen Kongresuko dagokion batzordeari bidaliko zaizkio, bai eta dagokion sektorean eskumena duen ministerioko titularrari eta Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioko titularrari ere; eta, hala badagokio, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioko titularrari, azken erabiltzaileen erreklamazioei dagokien zatian.

f) Merkatuetako edo ekoizpen-sektoretako lehiaren egiturari buruzko beste txosten batzuk; horiek ere Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren titularrari bidaliko zaizkio.

g) Batzordearen hurrengo urterako jarduera-plana; bertan, urte horretako jardueraren oinarritzko ildoak, eta dagozkion helburuak eta lehentasunak zehaztuko dira. Jarduera-plan hori Diputatuen Kongresuko dagokion batzordeari eta Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioko titularrari igorriko zaie.

h) Sektore publikoko arau-proiektuei edo jardueri buruzko txostenak.

i) Batzordeko kideek sektoreko enprekin egindako bilerak; betiere, bilera horiei publizitatea emateak ez badie Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren helburuei kalterik egiten.

j) Prozedurei amaiera ematen dieten ebazpenak.

k) Zuhurtasunezko neurriak ezartzen dituzten ebazpenak.

l) Kontzentrazioak kontrolatzeko espedientearen abiaraztea.

m) Zehapen-espedienteak irekitzea.

n) Uztailaren 3ko 15/2007 Legearen arabera egindako ikuskapenak.

2. Xedapenak, ebazpenak, erabakiak, txostenak, urteko jarduera-oroitidazkia eta jarduera-plana bitarteko elektronikoen bidez egingo dira publiko.

3. Hiru urtez behin, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak bere jarduera-planen ebaluazioa eta lortutako emaitzak aurkeztuko ditu, sektorean izandako inpaktua eta agindutako ebazpenen betetze-maila balioesteko. Ebaluazio horiek Diputatuen Kongresuko dagokion batzordeari eta Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioko titularrari ere igorriko zaizkie.

38. artikulua. Gainbegiratze-prozeduren efizientzia, eraginkortasuna eta kalitatea hobetzeko neurriak.

1. Lege honetako IV. kapituluak beste organo batzuei kontrol ekonomikoa eta finantzarioa gauzatzeko esleitzen dizkien eskumenei kalterik egin gabe, Batzordeak barne-kontrolerako organo bat izango du; organo horrek, mendekotasun funtzionalean aritzean eta txostenak egitean, inpartzialtasun- eta objektibotasun-printzipioak bete beharko ditu, eta interes-gatazkak saihestekoa.

2. Batzordeak bere gainbegiratze-eginkizunari buruzko txosten bat egingo du urtero; bertan, barne-kontrolerako organoaren txosten bat jasoko du, Batzordeak hartutako erabakiak prozedura-araudira egokitzen diren edo ez adieraziko duena. Txosten horrek Kontseiluaren onspena jaso beharko du, eta Gorte Nagusietara nahiz Ekonomia eta Lehiakortasun Ministeriora igorriko da.

39. artikulua. Parlamentu-kontrola.

1. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalako lehendakariak gutxienez urtean behin egin beharko du agerraldia Diputatuen Kongresuko dagokion batzordean, Batzordearen jardueraren ildo nagusien berri emateko eta etorkizunerako plan eta lehentasunak azaltzeko. Lehendakariarekin batera, Kontseiluko kide bat edo gehiago agertu ahal izango dira, Ganberak hala eskatuz gero.

2. Urteko agerraldiak jardueren urteko txostenean eta jarduera-planean oinarrituko dira.

3. Urtean behin agerraldia egiteko betebeharrari kalterik egin gabe, lehendakariak Kongresuko edo Senatuko dagokion batzordearen aurrean agertu beharko du, horiek hala eskatzen diotenean, dagozkien erregelamenduetan zehaztutako moduan.

4. Hiru urtez behin, lehendakariak agerraldi berezi bat egingo du, jarduera-planaren ebaluazioari eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak lortutako emaitzei buruz hitz egiteko.

Lehenengo xedapen gehigarria. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala eratzea eta eginkizunak eraginkortasunez betetzea.

1. Estatutu Organikoa onartu eta berehala, Ekonomiako eta Lehiakortasuneko ministroak Kontseiluko kideen izendapena proposatuko dio Gobernuari; proposatutako kide horiek Kongresuaren aurrean agertu beharko dute, eta Kongresuak hilabeteko epea izango du horiei betoa jartzeko, lege honetako 15. artikuluan xedatzen den moduan.

2. Kontseiluko kideen izendapenari buruzko errege-dekretua argitaratu eta hogeit eguneko epean eratu beharko da Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala, Kontseiluaren eraketaren bidez. Hura sortu ostean, Kontseiluak idazkaria izendatuko du.

3. Batzordea osatutakoan, Kontseiluak hilabeteko epea izango du honako ekintza hauek burutzeko:

a) Zuzendaritzako kideak izendatzea, lege honetako 26.3 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

b) Barne-funtzionamendurako erregelamendua prestatzea.

c) Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari dagozkion baliabide pertsonalak eta materialak esleitzea.

4. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala Ekonomiako eta Lehiakortasuneko ministroaren agindu bidez zehaztutako egunean jarriko da abian, esleitu zaizkion eginkizunak betetzen, eta, betiere, lege hau indarrean

sartzen denetik lau hilabeteko epean. Egun horretarako, lege honetan jasotzen diren eginkizunak bete ahal izateko behar dituen langile eta aurrekontu-bitartekoekin hornituta egon beharko du batzordeak.

Bigarren xedapen gehigarria. Erakundeak iraungitzea.

1. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala sortzean, desagertu egingo dira Lehiaren Batzorde Nazionala, Energiaren Batzorde Nazionala, Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordea, Posta Sektorearen Batzorde Nazionala, Trenbideak Arautzeko Batzordea, Jokoaren Batzorde Nazionala, Aireportuen Arautze Ekonomikorako Batzordea eta Ikus-entzunezkoen Estatuko Kontseilua.

2. Lege honetan xedatutakoari kalterik egin gabe, indarrean den legedian Lehiaren Batzorde Nazionalari, Energiaren Batzorde Nazionalari, Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordeari, Posta Sektorearen Batzorde Nazionalari, Ikus-entzunezkoen Estatuko Kontseiluari, Aireportuen Arautze Ekonomikorako Batzordeari eta Trenbideak Arautzeko Batzordeari egiten zaizkion erreferentziak Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari edo dagokion ministerioari egiten zaizkiola joko da, kasuan kasuko eginkizunaren arabera.

Uztailaren 3ko 15/2007 Legean Lehiaren Batzorde Nazionaleko Ikerketa Zuzendaritzari egiten zaizkion erreferentziak Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionaleko Lehia Zuzendaritzari egiten zaizkiola joko da.

Uztailaren 7ko 21/2003 Legearen VI. tituluan arautzen den Estatuko Gainbegiratze Agintaritzari dagokionez lege horretan bertan nahiz beste edozein xedapenetan egiten diren aipamenak Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari egiten zaizkiola joko da.

3. Ordenamendu juridikoaren edozein arautan jasotzen diren Jokoaren Batzorde Nazionalari buruzko aipamenak Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren mendeko Jokoa Antolatzeko Zuzendaritza Nagusiari egiten zaizkiola joko da; izan ere, hark ordezkatu eta hartuko ditu haren eskumenak, hamargarren xedapen gehigarrian aurreikusten den moduan.

4. Seigarren paragrafoan aurreikusitakoari kalterik egin gabe, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak bere eginkizunak betetzeko beharrezko dituen bitarteko materialak hartuko ditu bere gain, eta, bereziki, 1. paragrafoan aipatzen diren iraungitako erakundeen sistema eta aplikazio informatikoak; gainerakoak zazpigarren, zortzigarren, bederatzigarren, hamargarren, hamaikagarren eta hamabigarren xedapen gehigarrien bidez esleitutako eginkizunak hartzen dituzten ministerioen esku geldituko dira.

5. Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak eta Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak zehaztuko dute iraungitako erakundeen zein diruzaintza-saldo eta aktibo finantzario esleituko zaizkion Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari.

6. Iraungitako erakundeen titulartasuneko ondasun higiezinak eta eskubide errealak Estatuko Administrazio Orokorraren ondareari atxikiko zaizkio, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak ez duenean haien beharrik bere eginkizunak betetzeko.

Hirugarren xedapen gehigarria. Iraungitzen diren erakundeetako lehendakariaren, lehendakariordearen eta kontseilarien bateraezintasunari eta kalte-ordainei buruzko araubide berezia.

1. Kargua utzi eta hurrengo bi urteetan, iraungitzen diren erakundeetako lehendakariak, lehendakariordeak eta kontseilariak ezin izango dute araututako sektorearekin zerikusia duen jarduera profesional pribaturik gauzatu, ez sektoreko enpresetan, ez sektoreko enpresentzat, erakunde arau-emaielen kasuan. Lehiaren Batzorde Nazionalaren kasuan, lehendakariak eta kontseilariak ezin izango dute, kargua utzi eta hurrengo bi urteetan, Batzordearen jarduerarekin zerikusia duen inolako jarduera profesional pribatutan jardun.

2. Muga hori dela-eta, kargua uztean, iraungitzen diren erakundeetako lehendakariak, lehendakariordeak eta kontseilariak hileroko konpentsazio ekonomiko bat jasotzeko eskubidea izango dute. Kargua uzten duten hilabetearen hurrengotik hasiko dira konpentsazioa jasotzen, eta karguan zenbat hilabete eman duten, hainbeste hilabetetan eskuratuko dute, baina gehienez ere bi urtez. Zenbatekoa, berriz, jasoko den epealdian indarrean dagoen aurrekontuan kasuan kasuko karguarentzat zehaztutako ordainsari guztien ehuneko 80ren hamabirena izango litzateke, hileroko.

Ez dute aipatutako zenbateko hori jasoko sektore publiko nahiz pribatuan lanpostu, kargu edo jarduera ordainduren bat gauzatuz gero, aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren 1. artikuluan aurreikusten den moduan.

Laugarren xedapen gehigarria. Estatuko Administrazio Orokorrari bitartekoak esleitzea.

1. Lege honetako lehenengo xedapen gehigarrian Batzordea abian jartzeko aurreikusten den epean, Gobernuak beharrezko aldaketak onartuko ditu eragindako ministerioen oinarritzko egitura organikoa garatzen duten errege-dekretuetan.

2. Xedapen honetan aipatzen diren egiturari buruzko errege-dekretuetako aldaketak ez dira indarrean sartuko ministerioetako aurrekontuak eskumen-banaketa berrira egokitu arte, laugarren xedapen iragankorrean zehazten den moduan.

Bosgarren xedapen gehigarria. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari eskumenak esleitzea.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala sortzean indarrean diren arauak iraungitzen diren erakundeei esleitzen dizkieten eskumenak Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak eskuratuko ditu; betiere, lege honek Estatuko Administrazio Orokorreko ministerio-departamentu eskudunei berariaz esleitzen ez badizkie.

Seigarren xedapen gehigarria. Iraungitzen diren erakunde publikoetako langileak Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalean txertatzea.

1. Bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera iraungi egingo diren erakundeetako funtzionarioak Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalean edota Estatuko Administrazio Orokorrean integratuko dira.

Bi kasuetan, Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionarioei aplikatzen zaien funtzio publikoko legedian ezarritako mugikortasun-prozeduren arabera egingo da aipaturiko integrazioa.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalean integratzen diren funtzionarioak zerbitzu aktiboan sartuko dira, dagokien kidego edo eskalan, eta ordura arte aitortuta zeuzkaten eskubide eta betebeharrak berberak izaten jarraituko dute.

Estatuko Administrazio Orokorreko iraungitako erakundeen eskumenak bereganatzearen ondorioz bertan lanean hasten diren funtzionarioek ere administrazio-egoera eta berme berberak izango dituzte.

2. Iraungitzen diren erakundeetako langile lan-kontratudunak Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalean integratuko dira, martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Langileen Estatutuaren testu bategineko 44. artikuluan aurreikusten den moduan, ordura arte zeuzkaten lan-eskubideei eta -betebeharrei dagokienez.

Langile horiek integratzean, kontuan hartu beharko dira iraungitako erakundean zeuzkaten eginkizunak.

Salbuespen gisa, lan-kontratudun langileak ministerio-departamentuetan integratu ahal izango dira, aurreko paragrafoan aurreikusitako modu berean, lege honen bidez ministerio-departamentuei esleitzen zaizkien eginkizunak direla-eta, horien integrazioa beharrezkoa denean; dena den, ez da soldata-igoerarik izango, jatorrizko erakundeetan zuten egoerarekin alderatuta.

Heriotza, erretiroa edo beste edozein legezko arrazoi dela-eta, departamentu horietako egitura organikoa osatzen duten lanpostuak hutsik geratzen direnean, eta egoera horrek zerbitzu aktibora itzultzeko eskubiderik eragiten ez duenean, horiek amortizatu egingo dira; funtzionarioen plaza gisa emango dira altan, eginkizun horien jarraitutasuna bermatzeko, betiere hori egitea beharrezkoa denean, apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 9. artikuluan xedatzen denari jarraiki. Organo eskudunak zehaztutako baldintzetan eta irismenarekin berresleitu, amortizatu eta, hala badagokio, sortuko dira lanpostuak.

Zazpigarren xedapen gehigarria. Industria, Energia eta Turismo Ministerioak ikus-entzunezkoen arloan bere gain hartzen dituen eginkizunak.

Estatuko ikus-entzunezkoen esparruan, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak honako eginkizun hauek beteko ditu, dagoeneko esleituta dituenegain:

- a) Ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzua eskaintzen dutenen aldetik, jarduera abiarazteko komunikazioak jasotzea.
- b) Ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresen Estatuko erregistroa eramatea.
- c) Ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak gaitzen dituzten tituluen garapenari eragiten dieten alderdiei edo gertaerei buruzko erabakiak hartzea, hala nola horien iraupena, berritzea, aldatzea, negozio juridikoak egitea edo iraungitzea.
- d) Martxoaren 31ko 7/2010 Legearen 36 eta 37. artikuluetako baldintzak egiaztatzea, ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuaren operadoreen artean partaidetzak erosteko mugari dagokionez.
- e) Irrati bidezko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzua eskaintzen dutenen aldetik, kateko emisioa ziurtatzea eta, hala dagokionean, ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresen Estatuko Erregistroan inskribatu daitezela eskatzea.

Zortzigarren xedapen gehigarria. Industria, Energia eta Turismo Ministerioak energiaren arloan bere gain hartzen dituen eginkizunak.

Industria, Energia eta Turismo Ministerioak honako eginkizun hauek hartuko ditu bere gain:

1. Sektore elektrikoan:

- a) Bere eskumenen esparruan, honako hauek ikuskatzea: instalazioen baldintza teknikoak betetzen direla; baimenetan zehaztutako baldintzak betetzen direla; hidrokarburo-jardueren tarifa, prezio eta ordainketa-irizpideen aplikazioari eragin diezaieketen subjektuen jarduketak eta baldintza

ekonomikoak; gas-instalazioen erabilgarritasuna; banaketa- eta merkaturatze- enpresen salmenta-baldintzak eta fakturazio egokia, sareen sarbideari dagokionez; gas naturalaren horniduraren jarraitutasuna; zerbitzuaren kalitatea; eta, hala dagokionean, jarduera horiek modu egokian bereiztea.

b) Zehapen-espeditenteak abiarazi eta izapidetzea, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren eskumena ez izatean Estatuko Administrazio Orokorraren esku dagoenean hala egitea; eta herri-administrazioek abiarazitako zehapen-espeditenteak informatzea, hala eskatzen diotenean.

c) Energia elektrikoaren kontsumitzaileek aurkeztutako erreklamazioak informatzea, erantzutea eta izapidetzea, jarduera-protokoloen bidez, administrazio eskudunekin koordinatuta, eta kontsumitzaileen eskura beren eskubideei, indarrean den legediari eta gatazkak konpontzeko bideei buruzko informazioa jartzea.

Industria, Energia eta Turismo Ministerioak gauzatutako jardueren berri emango dio Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari, gutxienez sei hilez behin; besteak beste, informatu, erantzun eta izapidetu dituen erreklamazioen kopurua adierazi beharko dio, erakunde horri txikizkako merkatuen funtzionamendua gainbegiratzeko lanak erraztearren.

d) Energia elektrikoa garraiatzeko eta banatzeko kostuen, sistemaren kostu iraunkorren eta sistema osorako finkatutako gainerako kostuen likidazioa egitea, eginkizun hori berariaz esleitzen zaionean, eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari bidesari-metodologiak landu ahal izateko beharrezko informazio guztia igortzea.

e) Hornitzaile Aldaketen Bulegoaren jarduera gainbegiratzeko.

2. Hidrokarburoen sektorean:

a) Bere eskumenen esparruan, honako hauek ikuskatzea: instalazioen baldintza teknikoak betetzen direla; baimenetan zehaztutako baldintzak betetzen direla; hidrokarburo-jardueren tarifa, prezio eta ordainketa-irizpideen aplikazioari eragin diezaieketen subjektuen jarduketak eta baldintza ekonomikoak; gas-instalazioen erabilgarritasuna; banaketa- eta merkaturatze- enpresen salmenta-baldintzak eta fakturazio egokia, sareen sarbideari dagokionez; gas naturalaren horniduraren jarraitutasuna; zerbitzuaren kalitatea; eta, hala dagokionean, jarduera horiek modu egokian bereiztea.

b) Urriaren 7ko 34/1998 Legearen aplikazio-esparruan, zehapen-espeditenteei hasiera ematea erabakitzea eta horiek bideratzea, Estatuko Administrazio Orokorraren eskumenekoak direnean; halaber, herri-administrazioek abiarazitako zehapen-espeditenteak informatzea, aipatutako Legearen 52.4 artikuluan adierazten den Petrolio Produktuen Erreserba Estrategikoen

Korporazioari esleitutako eskumenei eta herri-administrazioetako beste organo batzuen eskumen eskusiboei kalterik egin gabe.

c) Urriaren 7ko 34/1998 Legearen 96. artikuluan aipatzen diren Oinarrizko Sarearen instalazioen erabileraren, bigarren mailako garraioaren eta banaketaren bidesari eta kanonetatik lortutako diru-sarrerei dagozkien likidazioak egitea eta interesdunei jakinaraztea.

d) Gas naturalaren kontsumitzaileek aurkeztutako erreklamazioak informatzea, erantzutea eta izapidetzea, jarduera-protokoloen bidez, administrazio eskudunekin koordinatuta, eta kontsumitzaileen eskura beren eskubideei, indarrean den legediari eta gatazkak konpontzeko bideei buruzko informazioa jartzea.

Industria, Energia eta Turismo Ministerioak gauzatutako jardueren berri emango dio Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari, gutxienez sei hilean behin; besteak beste, informatu, erantzun eta izapidetu dituen erreklamazioen kopurua adierazi beharko dio, erakunde horri txikizkako merkatuen funtzionamendua gainbegiratzeko lanak erraztearren.

e) Ziurtagiriak egitea eta bioerregaien kontsumoa eta salmenta egiaztatzeko mekanismoak kudeatzea.

f) Hornitzaile Aldaketen Bulegoaren jarduera gainbegiratzeko.

g) Indarrean den araudiak Energiaren Batzorde Nazionalari hidrokarburo likidoen esparruan esleitzen dizkion eskumenak betetzea.

3. Sektore elektrikoan eta hidrokarburoen sektorean: energia-sektorean partaidetzen erosketak ezagutzea.¹

Bederatzigarren xedapen gehigarria. Energiaren sektorean partaidetzak hartzea.

1. Industria, Energia eta Turismo Ministerioak honako eragiketa hauek aztertuko ditu:

a) Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legean xedatutakoaren arabera, uharteetako edo penintsulaz gaindiko jarduerak, energia elektrikoaren merkatuari dagozkion jarduerak edo araututa dauden jarduerak garatzen dituzten sozietateen aldetik edo sozietateetan partaidetzak hartzea.

¹ Sistema elektrikoaren finantza-egonkortasuna bermatzeko premiazko neurriak hartzen dituen uztailaren 12ko 9/2013 Errege Lege-dekretuaren azken xedapenetako seigarrenak gehitutako idatz-zatia.

b) Araututa dauden jarduerak, hidrokarburoen sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legean xedatutakoarekin bat datorren gas-sistemaren kudeaketa teknikoan oinarritzen diren jarduerak edo hidrokarburoen sektoreko jarduerak (petrolio finntzea, oliobide bidezko garraioa eta petrolio-produktuen biltegiatzea) garatzen dituzten sozietateen aldetik edo sozietateetan partaidetzak hartzea.

c) Arestian aipatutako a) eta b) hizkietan jasotzen diren jarduerak garatzeko beharrezkoak diren aktiboak edo Azpiegitura Kritikoen Katalogo Nazionalan jasotzen diren izaera estrategikoko sektorearen aktiboak dituzten sozietateen aldetik edo sozietateetan partaidetzak hartzea, azpiegitura kritikoentzako babeserako neurriak zehazten dituen apirilaren 28ko 8/2011 Legean xedatutakoaren arabera.

Aktibo estrategiko gisa hartuko dira ekoizpen nazionalako ikatzaren kontsumoan garrantzi berezia duten zentral termiko nuklearrak eta ikatzaren zentral termikoak, baita petrolio-finndegiak, oliobideak eta petrolio-produktuen biltegiatzeak.

d) Aurreko c) hizkian aipatutako aktiboak erostea.

2. Aurreko paragrafoko a) eta b) hizkietan jasotzen diren jarduerak egiten dituzten sozietateek Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren mendeko Energiaren Estatu Idazkaritzari jakinarazi beharko dizkiote Merkataritzako Kodearen 42.1 artikuluan zehazten diren irizpideen arabera zuzenean edota kontrolatzen dituzten sozietateen bitartez egindako erosketak; zehazki, beste merkataritza-sozietate batzuetako partaidetzak edo edozein motatako aktiboak erostean, eta partaidetza edo aktibo horien balioagatik edo beste arrazoi batzuegatik, eragiketa horrek eragin garrantzitsua edo esanguratsua duenean eragiketa jakinarazten duen sozietatearen jardueran.

3. Energiaren Estatu Idazkaritzari jakinarazi beharko zaio, halaber, partaidetzak eskuratu izana, horiek osatzen duten kapital sozialaren ehunekoa kudeaketa modu garrantzitsuan eragiteko modukoa denean, zuzenean nahiz Merkataritzako Kodearen 42.1 artikuluan zehazten diren irizpideen bitartez, 1. paragrafoan jasotzen diren jarduerak garatzen dituzten edo adierazitako aktiboen titular diren sozietateen kasuan. Era berean, 1. paragrafoko d) hizkian aipatutako aktiboak zuzenean eskuratu izana jakinarazi beharko zaio.

Gainera, nahitaez jakinarazi behar den partaidetzaren ehunekoa zehazteko, sozietate eskuratzailleak beste eskuratzaille edo bazkide batzuekin izan ditzakeen akordioak hartuko dira kontuan, eragindako sozietatean boto-eskubidea batera nahiz modu koordinatuan erabiltzeko.

4. Aurreko 3. paragrafoan adierazitako erosketa egin duen erakundea Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko kidea ez den estatu batekoa denean, xedapen honetako 7. paragrafoan adierazitakoa bete beharko da.

5. Era berean, eskurazaileak jakinarazi egin beharko ditu bere partaidetzan, isolatuta nahiz oro har, eraldaketa esanguratsuak eragin ditzaketan aldaketak.

6. Aurreko paragrafoetan adierazitako jakinarazpenak hamabost eguneko epean egin beharko dira, dagokion eragiketa gauzatzen den egunetik kontatzen hasita; gainera, merkataritzaren edo industriaren arloan garrantzia duten datuak edo informazioa zein diren adierazi ahal izango da, modu justifikatuan, horiek isilpekotzat jo daitezten.

7. Industriako, Energiako eta Turismoko ministroaren aburuz benetako mehatxu larria badago eskurazailearen jardueren esparruan elektrizitatearen, gasaren eta hidrokarburoen hornidura bermatzeko, xedapen honetako 2. eta 4. paragrafoen arabera jakinarazitako eragiketei loturik dauden sozietateen jardueraren inguruko baldintzak ezarri ahal izango ditu, baita eskurazaileari horiek betetzen direla bermatzeko ezarri ahal izango zaizkion betebeharrak zehatzak ere.

Arrisku horiek ondoko alderdi hauen ingurukoak izango dira:

a) Horniduraren segurtasuna eta kalitatea; hau da, produktuak edo zerbitzuak merkaturatu etengabe aurkitu ahal izatea, epe luzean edo laburrean, eta erabiltzaile guztientzat, arrazoizko prezioetan, erabiltzaileak edonon daudela ere.

b) Nahikoak ez diren mantenu edo inbertsioen aurrean izan beharreko segurtasuna, hornidura ziurtatzeko eskatzen diren gutxieneko zerbitzuak bermatzen ez dituzten azpiegituretan. Ondorio horietarako, zorpetze mailari begiratuko zaio inbertsioak bermatzeko, eta horri dagokionez bereganatutako konpromisoak bete diren edo ez ere hartuko da kontuan.

c) Eskurazailearen edo bereganatutako enpresaren gaitasun legalari, teknikoari, ekonomikoari eta finantzarioari buruzko baldintzak betetzea, aplikatzekoa den araudi zehatzean xedatzen denari jarraiki, eta, bereziki, Energia Nuklearrari buruzko apirilaren 29ko 25/1964 Legeari, Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legeari, Hidrokarburoen sektoreko urriaren 7ko 34/1998 Legeari eta horiek garatzen dituzten arauak jarraiki.

Ondorio horietarako, eskurazaileak dituen edo beste sozietate batzuegandik eskuratu nahi dituen partaidetzak edo xedapen honen xede diren aktiboak hartuko dira kontuan.

Ezarritako baldintzek proportzionaltasunaren printzipioa eta interes orokorra babesteko printzipioa errespetatuko dituzte beti.

Industria, Energia eta Turismo Ministerioari dagokio ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea, eta eragindako enpresek bete egin beharko dituzte ondorio horietarako agindu dakizkiekeen informazio-eskakizunak.

Ebazpena arrazoitu egin beharko da, eta gehienez ere 30 eguneko epean jakinarazi, aurrez Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren txostena jasota. Txosten hori ez da loteslea izango, eta hamar eguneko epean eman beharko da.

8. Partaidetzen erosketak elektrizitatea edo gasa garraiatzeko sarearen kudeatzaileei eragiten dienean —sarearen kudeatzaile independenteak barne—, Sektore Elektriikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legean eta Hidrokarburoen sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legean xedatutakoa bete beharko da.

Hamargarren xedapen gehigarria. Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren mendeko Jokoa Arautzeko Zuzendaritza Nagusiak jokoaren arloan bereganatzen dituen eginkizunak.

Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren mendeko Jokoa Arautzeko Zuzendaritza Nagusiak jokoa arautzen duen maiatzaren 27ko 13/2011 Legeak iraungitako Jokoaren Batzorde Nazionalari esleitzen dizkion xedea, eginkizunak eta eskumenak hartuko ditu bere gain.

Hamaikagarren xedapen gehigarria. Sustapen Ministerioak posta-sektoreari dagokionez bereganatzen dituen eginkizunak.

Postaren esparruan, Sustapen Ministerioak honako eginkizun hauek hartuko ditu bere gain:

1. Erabiltzaileei posta-operadoreei, sarbide-baldintzei, prezioari, kalitate mailari, eta kalte-ordainei eta horiek ordaintzeko epeei buruzko informazioa ematea, eta Ministerioaren webgunean argitaratzea, abenduaren 30eko 43/2010 Legearen 9.2 artikuluan adierazten den moduan.

2. Posta-zerbitzuen erabiltzaileen eta operadoreen artean posta-zerbitzu unibertsalaren esparruan sor litezkeen gatazkak aztertzea, Kontsumoko Arbitraje Batzordeetara eraman ez badira.

3. Posta-operadoreek beren betebeharrak ez betetzeagatik erabiltzaileek posta-zerbitzu unibertsalaren esparruan egin dituzten kexak eta salaketak aztertzea, abenduaren 30eko 43/2010 Legearen II. tituluan eta hori garatzen duen araudian xedatzen denari jarraiki.

Sustapen Ministerioak gauzatutako jardueren berri emango dio Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari, gutxienez sei hilean behin; besteak beste, informatu, erantzun eta izapidetu dituen erreklamazioen kopurua adierazi beharko dio, erakunde horri txikizkako merkatuen funtzionamendua gainbegiratzeko lanak erraztearren.

4. Aurreko paragrafoetan adierazitako eginkizunei dagokienez, ikuskatzeko eta zehatzeko ahalak erabiltzea.

5. Posta-jarduera gauzatzeko gaitasuna ematen duten baimen bereziak ematea eta aitopenak jasotzea, eta posta-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresen Erregistro Orokorra kudeatzea; hori guztia, posta-zerbitzu unibertsalari, erabiltzaileen eskubideei eta posta-merkatuari buruzko abenduaren 30eko 43/2010 Legearen IV. tituluan eta hori garatzen duten arauetan ezartzen denarekin bat etorritik.

Hamabigarren xedapen gehigarria. Presidentetza Ministerioak ikus-entzunezkoen arloan bereganatzen dituen eginkizunak.

Presidentetza Ministerioari gizartearentzako interes orokorreko gertaeren katalogoa onartzea dagokio, martxoaren 31ko 7/2010 Legearen 20.1 artikuluan aipatzen dena; hala ere, katalogo hori onartu baino lehen, ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak eskaintzen dituztenei eta kirol-txapelketak antolatzen dituztenei kontsulta egin beharko die.

Hamahirugarren xedapen gehigarria. Kontsumoko Institutu Nazionalari txostenak igortzea.

Industria, Energia eta Turismo Ministerioak energiaren alorrean eta Sustapen Ministerioak posta-zerbitzuaren alorrean bereganatutako eginkizunei kalterik egin gabe –zortzigarren xedapen gehigarriko 1. paragrafoko c) hizkian eta 2. paragrafoko d) hizkian, eta hamaikagarren xedapen gehigarriko 1. paragrafoan agertzen dira, hurrenez hurren–, ministerio horiek aurreko urteari dagokion txostena bidaliko diote Kontsumoko Institutu Nazionalari, urte natural bakoitzeko lehen hiruhilekoan. Txosten horretan, ondoko alderdiak jasoko dira: kontsumitzaileek egindako erreklamazioen artean erantzundakoen kopuruari buruzko informazioa, erreklamazio horien xedea, hartutako baiepen- eta ezespen-ebazpenak, zehapenak, hala egokitzuz gero, eta garrantzitsutzat jotzen den beste edozein alderdi.

Hamalagarren xedapen gehigarria. Lege honetan aurreikusitako eginkizunak betetzean sortutako tasak, ondare-prestazioak eta diru-sarrerak.

1. Lege honetan aurreikusten diren eginkizunak gauzatzen dituzten ministerioek eta erakundeek –horien eraginez, eranskinetako I.1, I.3, I.4 eta I.5 paragrafoetan eta II.1 paragrafoan jasotzen diren izaera publikoko ondare-prestazioak eta

tasak eskatzen dira— borondatezko epean gauzatuko dute beren kudeaketa eta diru-bilketa, bederatzigarren xedapen iragankorrean zehazten denari kalterik egin gabe.

2. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak kudeatuko eta bilduko ditu, borondatezko epean, eranskineko I.2 paragrafoan aurreikusitako tasa eta II.2 paragrafoan adierazitako ondare-prestazioa.

3. Xedapen gehigarri honetan adierazten diren eskubideei dagokien dirua —lege honen bidez iraungitzen diren erakundeei dagokiena barne— Altxor Publikoan sartuko da; salbuespen izango dira Radio Televisión Española korporazioaren finantzaketa-sistema eta posta-zerbitzu unibertsala finantzatzeko funtsa, horiek beren xedapenen bidez arautuko baitira.

4. Aurreko paragrafoetan adierazten diren baliabide publikoak betearazpen-epean biltzeko, uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Diru-bilketarako Erregelamendu Orokorrean xedatutakoa hartuko da kontuan.

5. Aurreko paragrafoetan adierazitako baliabideak lege hau indarrean sartzean indarrean den araudiak arautuko ditu, lege honetan xedatutakoarekin bateragarriak diren alderdietan.

Hamabosgarren xedapen gehigarria. Aholku-batzordeak.

1. Energiaren Aholku Batzordea sortzen da, Energiaren Estatu Idazkaritzaren eskumeneko gaietan Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren partaidetzarako eta kontsultarako organo gisa.

Energiaren Aholku Batzordeko burua Energiako estatu-idazkaria edo hura ordezkatzeko duen pertsona izango da. Aholku-batzordearen egitekoak energia-eta meategi-politiken esparruan azterlanak egitea, eztabaidatzea eta proposamenak luzatzea izango dira, besteak beste.

Era berean, Gobernuak edota Industriako, Energiako eta Turismoko ministroak helarazitako gaiak aztertuko ditu.

2. Aholku-batzordeak sortu ahal izango dira, halaber, telekomunikazioen, ikus-entzunezkoen, garraioen eta postaren sektoreetan.

3. Aholku-batzordeen eginkizunak, osaera, antolaketa eta funtzionamendu-arauak erregelamendu bidez zehaztuko dira. Batzorde horiek sortzeak eta abian jartzeak ez du gastu publikoan inolako igoerarik eragingo, eta dagozkion departamentuetan dauden bitarteko material eta pertsonalekin gauzatuko dira.

4. Aholku-batzordeek txostena prestatuko dute Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak xedapen orokorrak eta zirkularrak prestatzeko

orduan; txosten horiek eskubide eta interes legitimoen titularrei entzunaldia egitearen baliokide izango dira.

Hamaseigarren xedapen gehigarria. Aireportu-tarifen esparruan, aldi baterako gainbegiratze-eginkizunak betetzea.

1. Aireportuen Arautze Ekonomikorako Batzordea sortzen duen eta AENAKo langileen araubide juridikoa aldatzen duen abuztuaren 26ko 11/2011 Errege Lege Dekretuaren 10. artikuluko a) eta b) hizkietan zehazten diren eginkizunak Trenbideak Arautzeko Batzordeak hartuko ditu bere gain, lege hau indarrean sartzen den unetik aurrera; betiere, abuztuaren 26ko 11/2011 Errege Lege Dekretu horretako 11. artikulutik 13. artikulura xedatzen dena eta Aire Segurtasunari buruzko uztailaren 7ko 21/2003 Legearen VI. tituluko IV. kapituluan jasotzen dena kontuan hartuta.

2. Lege hau indarrean sartzen denetik aurrera, Trenbideak Arautzeko Batzordeak Trenbideak eta Aireportuak Arautzeko Batzordea izena hartuko du.

3. Xedapen honetan aurreikusten diren eginkizunak gauzatzean, Trenbideak eta Aireportuak Arautzeko Batzordeak erabateko independentzia funtzionala izango du erakundeei, finantza-erabakiei, lege-egiturari eta erabakiak hartzeari, aireportu-kudeatzaileari eta aire-konpainiei dagokienez, eta modu inpartzialean eta gardenean gauzatuko ditu bere eginkizunak.

4. Aplikatzekoa den araudiak uztailaren 7ko 21/2003 Legearen VI. tituluko IV. kapituluan arautzen den Gainbegiratuen Estatuko Agintaritzari egiten dizkion aipamen guztiak Trenbideak eta Aireportuak Arautzeko Batzordeari egiten zaizkiola joko da, 1. paragrafoan adierazitako eginkizunak gauzatzen dituenean.

Era berean, indarrean den araudian Trenbideak Arautzeko Batzordeari egiten zaizkion aipamenak Trenbideak eta Aireportuak Arautzeko Batzordeari egiten zaizkiola joko da.

5. Eginkizun horiek aldi baterako gauzatzeak, xedapen honetan aurreikusten dena baino haratago, ez du Trenbide Sektorari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 82. artikulutik 84. artikulura aurreikusitakoa aldatuko.

6. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala osatu ostean ere, jarraitu egingo du eginkizunen aldi baterako esleipen horrek, eta batzorde hori abian jartzen denean amaituko da.

Hamazazpigarren xedapen gehigarria. Publizitate-koerregulazioa sustatzea.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak lege honetan zehaztutako helburuak betetzen lagunduko duten koerregulazio-akordioak sinatu ahal izango ditu, batik bat ikus-entzunezko merkataritza-komunikazioak egiteko

eskubidearen betebeharrei, debekuei eta mugei dagokienez, lehia desleialari buruzko urtarrilaren 10eko 3/1991 Legearen 37.4 artikuluan aurreikusitakoarekin bat datozen publizitatearen autoerregulazio-sistemekin. Akordioan, autoerregulazio-sistemako jardueren ondorioak zehaztuko dira.

Hemezortzigarren xedapen gehigarria. Beste egoitza batzuk.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak beste egoitza batzuk eduki ahal izango ditu, lege honetako 2. artikuluko 3. paragrafoan zehazten denaren arabera.

Telekomunikazioetarako gaur egun dagoen egoitza mantendu egingo da; bertan, Ikus-entzunezko Sektorearen Telekomunikazio Zuzendaritza kokatuko da (Telekomunikazioaren eta Ikus-entzunezko Zerbitzuen Instrukzioa), gaur egungo baliabideak eta azpiegiturak aprobetxatzeko.

Lehenengo xedapen iragankorra. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionaleko kideen lehen agintaldia.

1. Kontseiluaren lehenengo bileran, izendatu eta bi urtera kargua utzi beharko duten hiru kontseilariak izendatuko dira, eta lau urteko epea igaro ostean utzi beharko duten hiru kontseilariak; ahal izanez gero, borondatez izendatuko dira, eta, bestela, zozketa bidez.

2. Lege honetako 15. artikuluan zehazten denari kalterik egin gabe, lehen berrikuntza partzialak eragindako kontseilariak berrautatu egin ahal izango dira, sei urteko beste agintaldi baterako.

Bigarren xedapen iragankorra. Lehenengo presidentea eta presidenteordea izendatzea.

Lege honetako lehenengo xedapen iragankorrean zehaztutakoak ez dio eragingo erakundeko lehenengo presidentearen eta presidenteordearen izendapenari; 15.2 artikuluari jarraiki, sei urteko agintaldia izango dute, eta ezin izango dira berrautatu.

Hirugarren xedapen iragankorra. Iraungitzen diren erakundeek eginkizunak betetzen jarraitzea.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala sortzen denetik abian jarri arteko epealdian, erakunde gainbegiratzailleek gaur egun gauzatzen dituzten eginkizunak betetzen jarraituko dute. Epealdi horretan, Kontseiluko kideek jardunean jarraituko dute beren karguetan, eta erakundeek beren jarduera gauzatzeko gaitasun osoa izango dute.

Laugarren xedapen iragankorra. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak eginkizunak aldi batean gauzatzea.

Lege honetan xedatutakoaren arabera ministerioei eskualdatu behar zaizkien eginkizunak Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak gauzatuko ditu, abian jarri ostean, ministerio-departamentuek eginkizun horiek modu eraginkorrean gauzatu ahal izateko beharrezko bitartekoak izan arte.

Bosgarren xedapen iragankorra. Lege hau indarrean sartu aurretik abiatutako prozedurak.

1. Lege hau indarrean sartu aurretik abiatutako prozedurak iraungitako erakundeek zeuzkaten eginkizunak betetzeko izendatutako agintaritzako organoek izapidetuko dituzte.

2. Merkatuen eta Lehiaren Batzordearen sorrera eta abian jartzea ezohiko egoera gisa hartu ahal izango da; ondorioz, aplikatzekoa den legedi zehatzaren arabera, luzatu egin ahal izango da iraungitze-data duten edo administrazio-isiltasunak eragindako prozedurak ebazteko gehieneko epea.

Seigarren xedapen iragankorra. Funtzionarioen lanpostuak, aurrez langile lan-kontratudunek betetzen zituztenak.

Ezohikoa izango bada ere, lege honetan zehazten denaren arabera funtzionarioenak diren eginkizunak dituzten lanpostuak betetzen zituzten iraungitako erakunde publikoetako lan-kontratudun langile finkoek lanpostu horietan jarraitu ahal izango dute.

Era berean, sor daitezkeen lanpostuak eta hutsik geratzen direnak lege honetako 31. artikuluan langileentzat zehazten den araubide juridikoaren aurreikuspenetara egokitu beharko dira.

Zazpigarren xedapen iragankorra. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren aurrekontuak onartu bitartean aplikatuko diren aurrekontuak.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak, osatzen denean, aurrekonturik ez badu, bigarren xedapen gehigarriaren arabera iraungitzen diren erakundeen aurrekontuak mantendu egingo dira, batzordeak bere aurrekontuak izan arte.

Zortzigarren xedapen iragankorra. Kontabilitaterako eta urteko kontuak emateko araubide iragankorra.

1. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak 2013ko ekitaldian exekutututako eragiketak iraungitako erakunde bakoitzaren kontabilitatean eta aurrekontuan erregistratuko dira, eragiketa horiei dagokien esparruaren arabera.

2. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalako presidentek 2013ko ekitaldiko kontu bat formulatu eta onartuko du iraungitako erakunde bakoitzeko; kontu horietan, erakunde bakoitzak gauzatutako eragiketak eta aurreko 1.

paragrafoan adierazten direnak jasoko dira, eta Kontuen Auzitegiari aurkeztuko dizkio, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrean zehaztutako moduan.

3. Iraungitako erakundeen 2012ko ekitaldiko urteko kontuak formulatu eta onartzea eta horiek Kontuen Auzitegiari aurkeztea, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrean zehaztutako moduan, erakunde horietan kontuak ematen dituen pertsonari edo Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalako presidenteari dagokio, batzordea ordurako eratu bada.

Bederatzigarren xedapen iragankorra. Eranskinean aurreikusitako tasak kudeatzea eta likidatzea.

1. Lege honetako eranskinetako I.1 paragrafoko A) eta B) epigrafeetan adierazten diren tasen kudeaketa eta likidazioa, horien inguruko araudi berria onartu arte, Posta Sektorearen Batzorde Nazionala sortzeari buruzko urriaren 8ko 23/2007 Legean arautzen eta zehazten diren tasak ordaintzeko inprimaki-ereduak onartzen dituen abenduaren 29ko FOM/3447/2010 Aginduan zehaztutakora egokituko dira.

2. Lege honetako eranskinetako I.4 paragrafoan adierazten diren tasen kudeaketa eta likidazioa urriaren 7ko 34/1998 Legearen hamabigarren xedapen gehigarrian zehaztutakora egokituko dira, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak bere eginkizunak modu eraginkorrean gauzatu ahal izateko beharrezko bitartekoak ez dituenen.

Hamargarren xedapen iragankorra. Energiaren Batzorde Nazionalaren aholkularitza-organoak.

Lege honetako hamabosgarren xedapen gehigarrian aurreikusitako Energiaren Aholku Batzordea sortu arte, urriaren 7ko 34/1998 Legearen hamaikagarren xedapen gehigarrian aurreikusitako Energiaren Batzorde Nazionalaren aholkularitza-organoek beren eginkizunak betetzen jarraituko dute.

Xedapen indargabetzailea.

Indarrik gabe geratzen dira lege honetan ezarritakoaren aurka doazen lerrun bereko edo beheragoko xedapen guztiak; besteak beste, honako hauek:

a) Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen laugarren xedapen gehigarriko 7. paragrafoa.

b) Hidrokarburoen sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legearen hamaikagarren xedapen gehigarria –seigarren paragrafoa salbu, horrek indarrean jarraituko baitu–, eta hamabigarren xedapen gehigarria.

c) Telekomunikazioei buruzko azaroaren 3ko 32/2003 Lege Orokorreko 48. artikulua, bertako 4. paragrafoa izan ezik.

d) Trenbide Sektoreari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 82, 83 eta 84. artikulua.

e) Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 12, 17 eta 40. artikulua eta III. titulua.

f) Posta Sektorearen Batzorde Nazionala sortzen duen urriaren 8ko 23/2007 Legea.

g) Ikus-entzunezko Komunikazioei buruzko martxoaren 31ko 7/2010 Lege Orokorreko V. titulua.

h) Ekonomia Iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen I. tituluko II. kapitulua eta azken xedapenetako laugarrena.

i) Jokoa Arautzeari buruzko maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen 20. artikulua, 21. artikuluko 15 eta 16. paragrafoak, 25, 26, 27, 28, 29, 30, 31, 32 eta 33. artikulua, 34. artikuluko 2. paragrafoa, bosgarren xedapen iragankorra eta azken xedapenetako bigarrenaren lehen lerrokada.

j) Abuztuaren 26ko 11/2011 Errege Lege Dekretua, Aireportuen Arautze Ekonomikorako Batzordea sortzen duena, haren osaera arautzen duena eta AENako langile lan-kontratudunen araubide juridikoa aldatzen duena.

Azken xedapenetako lehenengoa. Estatuko Administrazio Orokorren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko apirilaren 14ko 6/1997 Legea aldatzea.

Estatuko Administrazio Orokorren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko apirilaren 14ko 6/1997 Legearen hamargarren xedapen gehigarriko 1. paragrafoa aldatu egiten da; hona nola geratzen den idatzita:

«1. Balore Merkatuen Batzorde Nazionala, Segurtasun Nuklearraren Kontseilua, transferitu gabeko unibertsitateak, Datuak Babesteko Espainiako Agentzia, Kanarietako Zona Bereziko Partzuergoa, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala, Prado Museo Nazionala eta Sofia Erreginaren Museo Nazionala dagokien legedi zehatzaren arabera arautuko dira, eta, ordezko gisa, lege honen arabera.»

Azken xedapenetako bigarrena. Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legea aldatzea.

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen laugarren xedapen gehigarriko 5. paragrafoa aldatu egiten da, eta honela geratzen da idatzita:

«5. Datuak Babesteko Espainiako Agentziak, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak, Cervantes Institutuak, Segurtasun Nuklearraren Kontseiluak, Unibertsitateen Kontseiluak eta Jabetza Intelektualaren Batzordeko Bigarren Sekzioak emandako egintza eta xedapenak Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean, zuzenean.»

Azken xedapenetako hirugarrena. Hidrokarburoen sektorearen urriaren 7ko 34/1998 Legea aldatzea.

116. artikuluko 4. paragrafoa aldatu egiten da, eta honela geratzen da idatzita:

«4. Energiaren Batzorde Nazionalak zehapenak ezarri ahal izango ditu ondoko kasuetan:

a) 109.1 artikulua h), i), q), r) eta ac) lerrokadetan aurreikusitako arau-hauste oso larrien kasuan.

Halaber, 109.1 artikulua d), g) eta j) lerrokadetan tipifikatutako arau-hausteen kasuan zehapenak ezarri ahal izango ditu, baldin eta arau-haustea gertatu bada juridikoki lotesleak diren erabakiak ez betetzeagatik, informazioa ez igortzeagatik, ikuskaritzak ez egiteagatik edo Energiaren Batzorde Nazionalak bere eskumenen esparruan egindako errekerimenduak ez betetzeagatik, baita ab) lerrokan tipifikatutako arau-hausteen kasuan ere, bere eskumeneko arloei eragiten dietenean.

b) 110. artikulua l, t), u) eta w) lerrokadetan aurreikusitako arau-hauste larrien kasuan.

Halaber, 110. artikulua d) eta f) lerrokadetan tipifikatutako arau-hausteen kasuan zehapenak ezarri ahal izango ditu, baldin eta arau-haustea gertatu bada juridikoki lotesleak diren erabakiak ez betetzeagatik, informazioa ez igortzeagatik, ikuskaritzak ez egiteagatik edo Energiaren Batzorde Nazionalak bere eskumenen esparruan egindako errekerimenduak ez betetzeagatik, baita v) lerrokan tipifikatutako arau-hausteen kasuan ere, bere eskumeneko arloei eragiten dietenean.

c) Juridikoki lotesleak diren erabakiak eta Energiaren Batzorde Nazionalak bere eskumenen esparruan egindako errekerimenduak ez betetzearekin lotutako arau-hauste arinen kasuan.»

Azken xedapenetako laugarrena. Aire Segurtasunari buruzko uztailaren 7ko 21/2003 Legea aldatzea.

Aire Segurtasunari buruzko uztailaren 7ko 21/2003 Legea aldatu egiten da, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. Hamahirugarren xedapen gehigarri berri bat eransten zaio, eta honako hau dio:

«Hamahirugarren xedapen gehigarria. AENAKo langile lan-kontratudunen araubide juridikoa.

Aire-zirkulaziorako kontrolatzaile-baldintza ez duten AENA enpresa publikoko langile lan-kontratudunen negoziazio kolektiboa, kontratazioa eta araubide juridikoa AENA Aeropuertos SA sozietatearentzat legez finkatutakoak izango dira.»

Bi. Hamalagarren xedapen gehigarri berri bat eransten zaio, eta honako hau dio:

«Hamalagarren xedapen gehigarria. Aireportu-tarifen arloko prozedurak.

1. Proposamena onartzen ez bada, lege honetako 98. artikuluan jasotzen den prozedura bete ez duelako, aireportu-kudeatzaileari epe bat emango zaio, hautemandako hutsuneak konpon ditzan. Epe hori igarotzean hutsuneak konpondu ez baditu, edo proposamena ez onartu izanaren baldintzak mantentzen badira, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak arrazoizkotzat jotzen duen tarifa-aldaketaren proposamena igorriko dio organo eskudunari, behar bezala justifikatuta eta identifikatutako irregulartasunak azalduz, hark dagokion lege-aurreproiektuan txerta dezan.

Bestela, lege honetako 98. artikuluan aurreikusitako kontsulta- eta gardentasun-prozeduran irregulartasunak hautematen badira, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak etorkizuneko kontsultetan hartu beharreko neurri buruzko gomendioak emango ditu, eta, besteak beste, erabiltzaileen erakunde ordezkariekin loturik ez dauden aireportuko konpainia erabiltzaileei hedatu beharra adieraziko du.

2. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak, aireportu-kudeatzaileak aireportu-tarifak aldatzeko edo eguneratzeko aurkeztutako proposamenak lege honen 91. eta 101.1 artikuluetan aurreikusitakora egokitzen diren gainbegiratzean, irizpide horiekin bat datozen aireportu-kudeatzailearen proposamenak igorriko dizkio organo eskudunari, dagokion lege-aurreproiektuan txerta ditzan.

Bestela, Batzordeak tarifa-aldaketa berrikusia jakinaraziko dio aireportu-kudeatzaileari, edo, hala badagokio, proposamenak aurreko lerrokan xedatutakoa bermatzeko bete behar lituzkeen irizpideak, baita irizpide horietara egokitutako proposamen berria aurkezteko epea ere. Aireportu-kudeatzailearen jakinarazpena jaso ondoren, edota horretarako emandako epean jakinarazpenik jaso ez bada, Batzordeak dagokion tarifa-aldaketa berrikusia igorriko dio organo eskudunari, dagokion lege-aurreproiektuan txerta dezan. Batzordearen

proposamenean, modu argian eta zehatzean adieraziko dira Batzordeak proposaturiko tarifa-aldaketa eta aireportu-kudeatzailearen ikuspuntua.

Tarifa-aldaketa berrikusia zehazteko orduan, Batzordea aireportu-tarifen gehiegizko gorabeherak saihesten saiatuko da; betiere, lege honen 91. eta 101.1 artikuluetan zehaztutako printzipioekin bateragarria denean.»

Hiru. Hamabosgarren xedapen gehigarri berria eransten zaio, eta honako hau dio:

«Hamabosgarren xedapen gehigarria. Aireportu-tarifei buruzko kontsulta.

Kirol-hegazkintza edo hegazkintza orokorrerako aireontzien, aireko lanen eta aireontzi historikoen erabiltzaile kopuru esanguratsua duten aireportuetan, 98. eta 102. artikuluetan adierazten den kontsulta-prozeduran parte hartzeko aukera emango zaie operadore horien elkarteei edo erakunde ordezkariari.»

Azken xedapenetako bosgarrena. Telekomunikazioei buruzko azaroaren 3ko 32/2003 Lege Orokorra aldatzea.

Telekomunikazioei buruzko azaroaren 3ko 32/2003 Lege Orokorra aldatu egiten da; hona nola geratzen den idatzita:

Bat.13 bis artikulua honela geratzen da:

«13 bis artikulua. Eginkizunak bereiztea.

1. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak ondorioztatzen duenean aurreko artikuluan xedatutakoa betez ezarritako betebeharrak ez direla nahikoa izan lehia eraginkorra lortzeko, eta sarbide-produktuen handizkako merkatuekin lotutako lehia-arazoek edo akats larri eta iraunkorrek dirautela, honako hau proposatu ahal izango du, aparteko betebeharrak gisa: merkatuan botere nabarmena duten egitura bertikaleko operadoreak sarbide-produktuen handizkako hornidurarekin lotutako jarduerak enpresa-unitate independente bati pasatzera behartzea.

Enpresa-unitate horrek sarbide-produktuz eta -zerbitzuz hornituko ditu enpresa guztiak, sozietate nagusiaren beste enpresa-unitate batzuk barne, epe, termino eta baldintza berberetan –bereziki, prezio- eta zerbitzu-mailei dagokienez–, eta sistema eta prozesu berberen bidez.

2. Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak eginkizunak bereizteko betebeharra inposatzeko asmoa duenean, proposamen bat prestatuko du, ondoko alderdi hauek jasotzen dituena:

a) atera dituen ondorioak justifikatzen dituzten frogak,

b) azpiegituren oinarrituta, arrazoizko epean lehia izateko aukera gutxi dagoela edo aukerarik ez dagoela ziurtatzen duten frogak,

c) ondoko hauen gainean izango duen eragina azaltzen duen analisi bat: agintaritza arautzailearen gainean, enpresaren gainean –bereziki, bereizitako enpresaren langileen gainean eta komunikazio elektronikoen sektorearen gainean, oro har–, sektorean oro har inbertsioak egiteko pizgarrien gainean –bereziki, gizarte- eta lurralde-kohezioa bermatzeko beharrari dagokionez–, eta beste alderdi interesdunen gainean (besteak beste, azpiegituretako lehiaren gainean izango duen eragina eta kontsumitzaileen gainean izan lezakeen edozein ondorio negatibo), eta

d) betebeharrak hau identifikatutako lehia-arazoak edo merkatu-akatsak konpontzeko biderik egokiena dela justifikatzen duten arrazoen analisia.

3. Neurri-proiektuak hurrengo elementu hauek jasoko ditu:

a) bereizketaren izaera eta maila zehatzak, bereizitako enpresa-erakundearen estatutu juridikoa zehaztuz,

b) bereizitako enpresa-erakundearen aktiboak, baita erakunde horrek hornitu behar dituen produktu edo zerbitzuak ere,

c) bereizitako enpresa-erakundeak enplegatutako langileen independentzia bermatzeko gobernantza-mekanismoak eta dagokion pizgarri-egitura,

d) betebeharrak betetzen direla bermatzeko arauak,

e) prozedura operatiboen gardentasuna bermatzeko arauak –bereziki, beste alderdi interesdunei begira–, eta

f) betetze-maila bermatzeko jarraipen-programa, urteko txostena argitaratzea barne.

4. Eginkizunak bereizteko betebeharrak agintzeko proposamena Europako Batzordeari aurkeztuko zaio; nolahi ere, aurrez, horren gaineko txostena egin beharko dute Industria, Energia eta Turismo Ministerioak eta Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak, 46. artikuluko 1. paragrafoaren arabera agintaritza nazional araugileak diren aldetik.

5. Europako Batzordeak erabakia hartu ondoren, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak sarbide-sarearekin lotutako merkatuen analisi koordinatua egingo du, 10. artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraiki. Halaber, ebaluazioa oinarri hartuta, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak dagokion betebeharrak inposatu, mantendu, aldatu edo kenduko ditu, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak txostena egin ondoren.

6. Merkatu batean edo batzuetan botere nabarmena duen enpresa batek beste jabetza bat duen pertsona juridiko bereizi bati transferitu nahi badizkio tokiko sarbide-sarearen aktiboak edo horien zati handi bat, edo enpresa-erakunde bereizi bat ezarri nahi badu, txikizkako hornitzaile guztiei –baita bere txikizkako banaketei ere– guztiz baliokideak diren sarbide-produktuak hornitzeko, aurrez jakinaren gainean jarri beharko ditu Industria, Energia eta Turismo Ministerioa, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala. Enpresek xede horren edozer aldaketa eta bereizketa-prozesuaren azken emaitza ere jakinaraziko diete Industria, Energia eta Turismo Ministerioari, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioari eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari.

Kasu horretan, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak transakzioek erakunde horri erregelamendu bidez ezarritako betebeharretan izandako eragina aztertuko du, eta sarbide-sarearekin lotutako merkatuen analisi koordinatua egingo du, 10. artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraiki. Halaber, ebaluazioa oinarri hartuta, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak dagozkion betebeharrak inposatu, mantendu, aldatu edo kenduko ditu, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak txostena egin ondoren.

7. Funtzio-bereizketa ezarri zaien edo funtzioak bereiztea erabaki duten enpresak 13. artikuluan adierazitako edozer betebeharren mende egongo dira, erreferentziako edozer merkatutan, baldin eta horietan botere nabarmena badute.»

Bi. Hona nola geratzen den idatzita I. eranskineko 1. paragrafoa:

«1. Operadoreen tasa orokorra.

1. Operadoreei zerbitzu unibertsala finantzatzeko ezar dakiekeen ekarpen ekonomikoari kalterik egin gabe, 25. artikuluan eta III. tituluan zehazten den moduan, operadore guztiek urteko tasa bat ordaindu beharko dute; tasa hori ez da ustiaketaren bidez lortutako diru-sarrerara gordinen milako 1,5 baino handiagoa izango, eta sortutako gastuak ordaintzeko erabiliko da, hala nola kudeaketa-, kontrol- eta exekuzio-gastuak, lege honetan zehaztutako araubide juridikoa aplikatuz, 68. artikuluan adierazitako agintaritza nazional araugileak diren aldetik.

Aurreko lerrokadan adierazitakoaren ondorioetarako, diru-sarrerara gordin gisa hartuko dira lege honen aplikazio-esparruan sartzen diren komunikazio elektronikoen zerbitzuak eskaini eta sareak ustiatzean operadoreak bereganatutako diru-sarrerak. Horrenbestez, ez dira diru-sarrerara gordin gisa hartuko operadore batek eskainitako zerbitzuei dagozkien sarrerak, horien zenbatekoa erabiltzaileen aldetik jasotzen denean eta helburua komunikazio

elektronikoen zerbitzuak eskaintzen dituzten edo sareak ustiatzen dituzten operadoreen zerbitzuak ordaintzea denean.

2. Tasa urte bakoitzeko abenduaren 31n sortuko da. Nolanahi ere, operadoreari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta, hark horrela jarduteko gaitasuna galduko balu abenduaren 31 baino lehen, tasa gorabehera hori gertatzen den egunean sortuko da.

3. Urtero ordaindu beharreko tasa hori ez da arestian adierazitako gastuak baino handiagoa izango —kudeaketa-, kontrol- eta exekuzio-gastuak barne—, lege honetan zehaztutako araubide juridikoaren arabera.

Xede horrekin, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak txosten bat argitaratuko du urte bakoitzeko apirilaren 30a baino lehen; bertan, 68. artikuluan aipatzen den araubide juridikoa betetzearen ondorioz agintaritza nazional araugileek egindako gastuak jasoko dira.

Txostenean, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak lege honetan zehaztutako araubide juridikoa betez egindako gastuak jasoko dira, bereizita; gastu horiek oinarri gisa erabiliko dira, Batzordeak Estatuko Aurrekontu Orokorren kargura izango duen urteko diru-kopurua finkatzeko eta Batzordeak lege hau aplikatzeko behar beste baliabide finantzario izango dituela bermatzeko.

Tasaren zenbatekoa honela kalkulatu da: agintaritza nazional araugileek aurreko ekitaldian egindako gastuen zenbatekoari —lege honetan zehaztutako araubide juridikoaren aplikaziotik 68. artikuluan adierazten dena eta arestian aipatutako txostenean jasotzen dena— telekomunikazio-operadore bakoitzaren ustiapenaren diru-sarrera gordinak ordezkatzeko dituen ehunekoa aplikatuko zaio, telekomunikazio-operadoreek ekitaldi horretan bertan lortutako ustiapenaren diru-sarrera gordinei dagokienez.

Erregelamendu bidez, tasa horren likidaziorako kudeaketa-sistema zehaztuko da; baita telekomunikazio-operadoreek beren ustiapenaren diru-sarrera gordinen zenbatekoa Industria, Energia eta Turismo Ministerioari jakinarazteko dituzten epeak eta baldintzak ere, telekomunikazio-operadore bakoitzak ordaindu beharreko tasaren zenbatekoa kalkula dezan.»

Hiru. Hona nola geratzen den idatzita I. eranskineko 5. paragrafoa:

«5. Tasak borondatezko epean kudeatu eta biltzea.

Industria, Energia eta Turismo Ministerioak borondatezko epean kudeatu eta bilduko ditu eranskin honetan jasotzen diren tasak.»

Azken xedapenetako seigarrena. Trenbide Sektorari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Legea aldatzea.

Trenbide Sektoreari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Legea aldatu egiten da, eta honela geratzen da idatzita:

Bat.95. artikulua honela geratzen da:

«95. artikulua. Zehapenak ezartzeko eskumena.

Arau-hauste arinen zehapenak Gobernuak autonomia-erkidegoetan dituen ordezkariak ezarriko dituzte, eta arau-hauste larrienak Sustapen Ministerioaren mendeko Azpiegitura, Garraio eta Etxebizitzako estatu-idazkariak. Arau-hauste oso larrien zehapenak Sustapeneko ministroak jarriko ditu.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari dagokio bere ebazpenak ez betetzeagatik egoki diren zehapenak jartzea, ez-betetze horiek arau-hauste gisa jasotzen badira, 88.b) eta 89.a) artikuluetan.»

Bi.96. artikuluari 12. paragrafo berria eransten zaio, honako hau dioena:

«12. Artikulu honetan araututako jarduerak Merkaturaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalak gauzatuko ditu, 95. artikuluko bigarren lerrokadan adierazitako arau-hausteen ondorioz abiarazitako prozeduren kasuan.»

Azken xedapenetako zazpigarrena. Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legea aldatzea.

Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 70. artikuluari 3. paragrafo berria eransten zaio, eta honako hau dio:

«3. Isunen zenbatekoa Estatuko Administrazio Orokorrek bilduko du borondatezko epean, eta Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak exekuzioaldian, uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Diru-bilketarako Erregelamendu Orokorrean zehaztutakoari jarraiki.»

Azken xedapenetako zortzigarrena. Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legea aldatzea.

Bat. Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 13. artikuluko 7. paragrafoa ezabatu egiten da.

Bi. Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 66. artikuluko 3. paragrafoa aldatu egiten da, eta honela geratzen da idatzita:

«3. Merkaturaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalak, bere jarduera-eremuaren eta esleitu zaizkion eginkizunen barruan, zehapen eraginkor, proportzionatu eta eragozleak ezarri ahal izango dizkie enpresa elektrikoari, baldin eta lege honen 60.a) artikuluan 1, 2, 5, 6 eta 7. zenbakietan oso larritzat tipifikatutako arau-hausteak egiten badituzte, baita 60.a) artikuluan 8, 9 eta 10. zenbakietan tipifikatutakoak egiten badituzte ere, Merkaturaren eta Lehiaren Batzorde

Nazionalak bere eskumenen esparruan emandako ebazpenak, juridikoki lotesleak direnak, edo errekerimenduak ez betetzean.

Halaber, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak aurreko lerrokadan adierazitako arau-hauste larriak zehatzeko eskumena izango du, inguruabarrak aintzat hartuta oso larritzat jo ezin direnean, eta zehazki, lege honen 61.a) artikulua 4, 5 eta 22. zenbakietan tipifikatutakoen kasuan, Batzorde horrek bere eskumenen esparruan emandako ebazpenak, juridikoki lotesleak direnak, edo errekerimenduak ez betetzean.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak lege honen 62. artikuluan tipifikatutako arau-hauste arinak zehatzeko eskumena izango du, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak bere eskumenen esparruan egindako ebazpenak, juridikoki lotesleak direnak, edo errekerimenduak ez betetzean.

Nolanahi ere, zehapenaren zenbatekoak ezin izango du garraio-sarearen kudeatzailearen negozio-zifraren urteko zenbateko garbiaren % 10 gainditu, edota egitura bertikala duen taldeko sozietate nagusiaren negozio-zifra kontsolidatuaren urteko zenbateko garbiaren % 10 gainditu.»

Azken xedapenetako bederatzigarrena. Eskumen-titulua.

Lege hau ondoko hauetan xedatutakoaren babesean emana da:

a) Konstituzioaren 149.1.13 artikulua, Estatuari jarduera ekonomikoaren plangintza orokorrari buruzko oinarriak zehatzeko eta haren koordinazio orokorra egiteko eskumen eskusiboa ematen diona.

b) Konstituzioaren 149.1.20 artikulua, Estatuari interes orokorreko aireportuen gaineko eskumen eskusiboa ematen diona.

c) Konstituzioaren 149.1.21 artikulua, Estatuari autonomia-erkidego bat baino gehiagoren lurraldetik dabiltzan trenbideen, komunikabideen araubide orokorraren eta posta eta telekomunikazioen eskumen eskusiboa ematen diona.

d) Konstituzioaren 149.1.25 artikulua, Estatuari meategi- eta energia-araubidearen oinarriak emateko eskumen eskusiboa ematen diona.

e) Konstituzioaren 149.1.27 artikulua, Estatuari prentsaren, irratia eta telebistaren oinarritzko legeria emateko eskumen eskusiboa ematen diona.

Azken xedapenetako hamargarrena. Arauak onartzeko gaikuntza.

1. Gobernuak lege honetan xedatutakoa garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren erregelamendu-xedapenak onartu ahal izango ditu.

2. Lege hau indarrean sartzen denetik gehienez ere bi hilabeteko epean, Ministroen Kontseiluak lege honetako 26. artikuluan adierazten den Estatutu Organikoa onartuko du, errege-dekretu bidez; bertan, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren jarduera-araubideari eta funtzionamenduari dagokienez lege honen arabera beharrezko diren alderdi guztiak finkatuko dira, eta, bereziki, honako hauek:

- a) Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren egitura organikoa.
- b) Eskumenak organoen artean banatzeko modua.
- c) Langileen araubidea.

Azken xedapenetako hamaikagarrena. Indarrean sartzea.

Lege hau «Estatuko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Beraz,

Lege hau betetzeko eta betearazteko agintzen diet espainiar guztiei, norbanakoei eta agintariei.

ERANSKINA

Lege honetan araututako jarduerekin eta zerbitzuekin zerikusia duten tasak eta izaera publikoko ondare-prestazioak

I. Zerbitzuak eskaintzeagatik eta jarduerak gauzatzeagatik ordaindu beharreko tasak

1. Posta-sektorearekin loturiko zerbitzuak eskaintzeagatik eta jarduerak gauzatzeagatik ordaindu beharreko tasak

A) Posta-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak Erregistro Orokorrean inskribatzeko tasa.

1. Zergapeko egitatea.

Tasaren zergapeko egitatea posta-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak Erregistro Orokorrean inskribatzeak eta inskripzioa berritzeak osatzen dute.

2. Sortzapena.

Inskribatzean eta inskripzioa urtero berritzean sortuko da tasa.

3. Subjektu pasiboak.

Posta-zerbitzuak eskaintzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak izango dira subjektu pasibo; betiere, posta-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresen Erregistro Orokorrean inskribatuta badaude.

Posta-zerbitzu unibertsalaren esparruko posta-zerbitzuak eta esparru horretan sartzen ez diren zerbitzuak aldi berean eskaintzen dituzten enpresek zerbitzu horiei dagozkien ataletan inskribatuta egon beharko dute posta-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresen Erregistro Orokorrean. Inskripzio eta berritze bakoitza egitean, dagokion tasa ordaindu beharko da.

4. Zenbatekoak.

Ordaindu beharreko kuota 400 eurokoa izango da; zenbateko hori Erregistroan inskribatzean edota inskripzioa berritzean ordaindu beharko da.

5. Kudeaketa.

Sustapen Ministerioa arduratuko da tasa likidatzeaz, ondorio horietarako emandako ministro-aginduan xedatzen dena betez.

B) Erregistroko ziurtagiriak egiteagatik ordaindu beharreko tasa.

1. Zergapeko egitatea.

Tasaren zergapeko egitatea posta-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresen Erregistro Orokorra erregistro-ziurtagiriak egiteak osatzen du.

Tasa hori ez da aplikatuko ziurtagiria hasierako inskripzioa egitean edota inskripzioa berritzean egiten den kasuetan.

2. Sortzapena.

Tasa erregistro-ziurtagiria eskatzean sortuko da.

3. Subjektu pasiboak.

Subjektu pasiboak ziurtagiria eskatzen duten pertsonak izango dira.

4. Zenbatekoak.

Ordaindu beharreko kuota 100 eurokoa izango da, eta eskaera aurkezten den unean bertan ordaindu beharko da.

5. Kudeaketa.

Sustapen Ministerioa arduratuko da tasa likidatzeaz, ondorio horietarako emandako ministro-aginduan xedatzen dena betez.

C) Administrazio-baimen bereziak emateagatik ordaindu beharreko tasak.

Sustapen Ministerioak posta-zerbitzu unibertsalari, erabiltzaileen eskubideei eta posta-merkatuari buruzko abenduaren 30eko 43/2010 Legearen 32. artikuluan zehaztutako moduan jarraituko du tasa likidatzen.

2. Kontzentrazio-eragiketekin loturiko zerbitzuak eskaintzeagatik eta jarduerak gauzatzeagatik ordaindu beharreko tasak

Kontzentrazio-eragiketak analizatzeagatik eta aztertzeagatik ordaindu beharreko tasa.

1. Zergapeko egitatea.

Tasaren zergapeko egitatea Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak bere kontrolpean dauden kontzentrazioen azterketa egiteak osatzen du; zehazki, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 8. artikuluan zehazten diren kontzentrazioak.

2. Sortzapena.

Tasa uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 9. artikuluan aurreikusitako jakinarazpena aurkeztean sortuko da.

Autolikidazioa diru-sarrerarik egin gabe aurkezten baldin bada, premiamenduaren bidez ordainaraziko da zenbatekoa, eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak kasuan kasuko espedientea hasteko aukera izango du.

3. Subjektu pasiboak.

Subjektu pasiboak uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 9. artikularen arabera jakinarazpena egin behar duten pertsonak izango dira.

4. Zenbatekoak.

1. 1.500 euroko kuota finkoa, uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 56. artikuluan aurreikusitako jakinarazpen-inprimaki laburtuaren bidez izapidetu beharreko kontzentrazioen kasuan. Nolanahi ere, aipatutako artikuluan jasotzen den moduan, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak erabakitzen badu aldeek inprimaki arrunta aurkeztu behar dutela, horiek kasuan kasuko likidazio osagarria egin beharko dute.

2. Uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 8. artikuluan zehaztutako kontzentrazio ekonomikoko eragiketak aztertu behar badira, tasaren kuota honako hau izango da:

a) 5.502,15 eurokoa, kontzentrazio-eragiketan parte hartu duten guztien artean Espainian duten negozio-bolumen orokorra 240.000.000 eurokoa edo gutxiagokoa baldin bada.

b) 11.004,31 eurokoa, kontzentrazio-eragiketan parte hartu duten guztien artean Espainian duten negozio-bolumen orokorra 240.000.000 eurotik 480.000.000 eurora artekoa baldin bada, hori barne.

c) 22.008,62 eurokoa, kontzentrazio-eragiketan parte hartu duten guztien artean Espainian duten negozio-bolumen orokorra 480.000.000 eurotik 3.000.000.000 eurora artekoa baldin bada, hori barne.

d) 43.944 euroko kopuru finkokoa, kontzentrazio-eragiketan parte hartu duten guztien artean Espainian duten negozio-bolumena 3.000.000.000 eurotik gorakoa bada, gehi 11.004,31 euro, aipaturiko negozio-bolumenak aurreko kopurua 3.000.000.000 eurotan gainditzen duen aldi bakoitzeko. Nolanahi ere, tasaren gehieneko muga 109.806 eurokoa izango da.

5. Itzulketa.

Tasa eta Prezio Publikoei buruzko apirilaren 13ko 8/1989 Legearen 12. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zergapeko egitatea subjektu pasiboari egozgarriak ez zaizkion arrazoiengatik gertatu ez denean bakarrik itzuliko dira eskatutako tasak.

6. Kudeaketa.

Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren tasaren likidazioa xede horretarako emandako ministro-aginduan zehaztutakora egokituko da.

3. Telekomunikazioen sektorearekin loturiko zerbitzuak eskaintzeagatik eta jarduerak gauzatzegatik ordaindu beharreko tasak

Industria, Energia eta Turismo Ministerioari dagokio honako tasa hauek likidatzea:

A) Operadoreen tasa orokorra, Telekomunikazioei buruzko azaroaren 3ko 32/2003 Legearen I. eranskineko 1. paragrafoan arautzen dena.

B) Telefono-numerazioaren tasak, azaroaren 3ko 32/2003 Legearen I. eranskineko 2. paragrafoan arautzen direnak.

C) Jabari publiko irrati-elektikoaren erreserbarako tasa, azaroaren 3ko 32/2003 Legearen I. eranskineko 3. paragrafoan arautzen dena.

D) Telekomunikazio-tasak, azaroaren 3ko 32/2003 Legearen I. eranskineko 4. paragrafoan arautzen direnak.

4. Energia-sektorearen eginkizunak betetzeko aurreikusitako tasak

1. Lege honetan aurreikusten diren ondorioetarako, honako tasa hauek ezartzen dira:

Lehena. Hidrokarburu likidoen sektorearekin loturiko zerbitzuak eskaintzeagatik eta jarduerak gauzatzeagatik aplikatu beharreko tasa.

a) Zergapeko egitatea. Tasaren zergapeko egitatea Industria, Energia eta Turismo Ministerioak hidrokarburu likidoen sektorearekin lotuta gauzatutako jarduerak eta eskainitako zerbitzuek osatzen dute, lege honetan eta hidrokarburuen sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legean ezartzen denaren arabera.

b) Zerga-oinarria. Tasaren zerga-oinarria ontziratutako eta ontziratutako gabeko gasolina, gasolio, keroseno, fuel-olio eta petrolio-gas likidotuen urteko salmentek osatzen dute, tona metrikoetan adierazita (Tm), lurralde nazionalean entregatu direnean. Ondorio horietarako, operadoreen artean egindako salmentak ez dira salmentatzat hartuko, ezta urriaren 7ko 34/1998 Legearen 45. artikuluan aipatutako operadoreek petrolio-gas likidotuen banatzaileei azken kontsumitzaileentzako kanalizazio bidez egindako salmentek ere.

Aurreko lerrokadan adierazitako salmentak urtero kalkulatu dira, aurreko urte naturalean egindakoak oinarri gisa hartuta, eta urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu dira. Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren mendeko Energia eta Meategi Politiken Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez, operadore bakoitzari dagozkion urteko salmentak zehaztu dira; salmenta horiek Altxor Publikoari ordaindu beharreko zerga-kuota kalkulatzeko oinarri gisa hartu dira. Aurreko lerrokadan adierazitako ebazpena eman arte, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak aurreko urterako finkatutako urteko salmenten arabera egingo du paragrafo honetako f) hizkian aurreikusitako likidazioa. Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren mendeko Energia eta Meategi Politiken Zuzendaritza Nagusiak ebazpena eman ostean, kasuan kasuko erregularizazioak egingo ditu, ezarritako salmenten arabera.

c) Tasaren sortzapena. Tasa hilabete natural bakoitzeko azken egunean sortuko da.

d) Subjektu pasiboak. Tasaren subjektu pasiboak urriaren 7ko 34/1998 Legearen 42 eta 45. artikuluetan adierazitako handizkako operadoreak izango dira.

e) Karga-tasa eta kuota. Altxor Publikoari ordaindu beharreko zerga-kuota zehazteko, tasa honekin biderkatu behar da zerga-oinarria: tona metriko bakoitzeko, 0,140817 euro.

f) Kudeaketa-arauak. Industria, Energia eta Turismo Ministerioak hilero likidatu du tasa, eta likidazio bakoitzaren zenbatekoa aurreko e) hizkian definitutako zerga-kuotaren hamabirena izango da.

Industria, Energia eta Turismo Ministerioak likidatutako eta jakinarazitako tasa uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Zerga-bilketako Erregelamendu Orokorrean adierazitako epeetan ordaindu beharko dute aurreko d) hizkian zehaztutako subjektu pasiboek.

Bigarrena. Hidrokarburo gaseosen sektorearekin loturiko zerbitzuak eskaintzeagatik eta jarduerak gauzatzeagatik aplikatu beharreko tasa.

a) Zergapeko egitatea. Tasaren zergapeko egitatea Industria, Energia eta Turismo Ministerioak eta Merkatuaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalak hidrokarburo gaseosen sektorean egindako jarduerak eta eskaintako zerbitzuek osatzen dute, lege honetan eta hidrokarburoen sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legean ezartzen denaren arabera.

b) Zerga-oinarria. Tasaren zerga-oinarria urriaren 7ko 34/1998 Legearen 92. artikuluan aipatzen diren bidesari eta kanonak aplikatzearen ondorio den fakturazio osoak osatzen du.

c) Sortzapena. Tasa hilabete natural bakoitzeko azken egunean sortuko da.

d) Subjektu pasiboak. Tasaren subjektu pasiboak birgasifikazioari, GNL tankeetan biltegitratzeari, oinarrizko biltegitratzeari, garraioari eta banaketari dagozkion jarduerak urriaren 7ko 34/1998 Legean aurreikusitako moduan egiten dituzten enpresak izango dira.

e) Karga-tasak eta kuota. Altxor Publikoari ordaindu beharreko zerga-kuota zehazteko, tasa honekin biderkatu beharko da zerga-oinarria: ehuneko 0,140.

f) Kudeaketa-arauak. Tasa hileroko autolikidatuko dute aurreko d) hizkian adierazitako subjektu pasiboek. Subjektu pasiboak dagozkion aitorpen-likidazioaren inprimakia bete beharko du, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak ebazpen bidez onarturiko ereduaren arabera.

Aurreko lerrokadan aurreikusitakoaren ondorioetarako, subjektu pasiboek, hilabete bakoitzaren 25a baino lehen, aurreko hilabeteari dagozkion fakturazio osoaren aitorpen-likidazioa aurkeztu beharko diote Industria, Energia eta Turismo Ministerioari, eta, bertan, epeak eta fakturak xehatu beharko dituzte.

Hilabete bakoitzeko fakturazioari dagozkion tasen zenbatekoa likidatutako fakturazio-epetaren hurrengo hilabeteko 10. eguna baino lehen ordaindu beharko da, edo, hala badagokio, hurrengo egun balioduna baino lehen.

g) Tasa urriaren 7ko 34/1998 Legean aurreikusitako bidesarien eta kanonen egituraren integrazioa. Hidrokarburo gaseosen sektorean zerbitzuak eskaintzeagatik eta jarduerak gauzatzeagatik ordaindu beharreko tasa gas-sistemako etengabeko kostutzat hartzen da, eta urriaren 7ko 34/1998 Legean

eta hori garatzen duten xedapenetan ezarritako egituran, bidesarrietan eta kanonetan integratzen da, ondorio guztietarako.

Hirugarrena. Sektore elektrikoarekin loturiko zerbitzuak eskaintzeagatik eta jarduerak gauzatzeagatik aplikatu beharreko tasa.

a) Zergapeko egitatea. Tasaren zergapeko egitatea Industria, Energia eta Turismo Ministerioak eta Merkatuaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalak sektore elektrikoarekin lotuta gauzatutako jarduerak eta eskaintako zerbitzuek osatzen dute, lege honetan eta Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legean ezartzen denaren arabera.

b) Salbuespenak eta hobariak. Salbuespenei eta hobariei dagokienez, abenduaren 26ko 2017/1997 Errege Dekretuaren xedapen gehigarri bakarrean zehazten dena hartuko da kontuan, honako kostu hauek likidatzeko prozedura antolatu eta arautzen duenean: tarifako garraioaren, banaketaren eta merkaturatzearen kostuak, sistemaren kostu iraunkorrak eta horniduraren dibertsifikazioaren zein segurtasunaren kostuak. Gainera, haren bidez, aipatutako errege-dekretuko 5. artikuluan aipatutako kuotei aplikatzekoa zaien koefiziente murriztaile eta salbuespenen araubidea zehazten da.

Era berean, abenduaren 26ko 2017/1997 Errege Dekretuaren seigarren xedapen iragankorrean xedatutakoa aplikatuko da.

c) Zerga-oinarria. Tasaren zerga-oinarria azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 17. artikuluan aipatzen diren sarbide-bidesariak aplikatzeak eragindako fakturazio osoak osatzen du.

d) Tasaren sortzapena. Tasa hilabete natural bakoitzeko azken egunean sortuko da.

e) Subjektu pasiboak. Tasaren subjektu pasiboak garraio- eta banaketa-lanak egiten dituzten enpresak dira, azaroaren 27ko 54/1997 Legeak zehaztutako moduan.

f) Karga-tasak eta kuota. Altxor Publikoan ordaindu beharreko zerga-kuota zehazteko, zerga-oinarriarekin biderkatuko den tasa ehuneko 0,150 izango da, azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 17. artikuluan aipatzen diren bidesarien kasuan.

g) Kudeaketa-arauak. Aurreko e) hizkian adierazitako subjektu pasiboek hilero autolikidatuko dute tasa. Subjektu pasiboak dagokion aitortpen-likidazioaren inprimakia bete beharko du, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak ebazpen bidez onarturiko ereduaren arabera.

Aurreko lerrokadan aurreikusitako ondorioetarako, subjektu pasiboek, hilabeteko 25. eguna baino lehen, aurreko hilabeteari dagokion fakturazio osoaren

aitorpen-likidazioa aurkeztu beharko diote Industria, Energia eta Turismo Ministerioari; bertan, epeak eta fakturak xehatuko dituzte.

Azken-aurreko hilabeteko fakturazioaren tasak hilabete bakoitzeko 10. eguna baino lehen ordaindu beharko dira, edo, hala badagokio, haren hurrengo egun balioduna baino lehen.

h) Tasa azaroaren 27ko 54/1997 Legean aurreikusitako bidesarien egituraren sartzeari. Sektore elektrikoaren zerbitzuak eskaintzeagatik eta jarduerak gauzatzeko ordaindu beharreko tasa sistemaren etengabeko kostu gisa hartzen da, azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 16.5 artikularen arabera, eta lege horretan eta hori garatzen duten xedapenetan zehaztutako bidesari-egituraren sartzeari, ondorio guztietarako.

2. Xedapen honetan definitzen diren tasak borondatezko epean kudeatu eta biltzea Industria, Energia eta Turismo Ministerioari dagokio, Tributuei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrean eta aplikatzekoa den gainerako araudian aurreikusten den moduan.

Xedapen honetan definitutako tasak borondatezko epean ordaindu ahal izateko atzerapena eta zatikapena adosteko eskumena Industria, Energia eta Turismo Ministerioari dagokio, uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Diru-bilketarako Erregelamendu Orokorrean aurreikusten den moduan. Dirua betearazpen-bidez biltzeko eskumena Ogasun Publikoko diru-bilketarako organoek izango dute, zergei buruzko araudian aurreikusten den moduan.

3. Aurreko paragrafoetan aurreikusten ez den guztirako, Tributuei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrean, Tasa eta Prezio Publikoen apirilaren 13ko 8/1989 Legean eta horiek garatzen dituzten arauetan zehaztutakoa aplikatuko da.

4. Gobernuak lau urtez behin berrikusiko ditu karga-tasak, eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak eta Industria, Energia eta Turismo Ministerioak justifikatutako finantzazio-premietara egokituko ditu.

Lehenengo berrikuspena Industria, Energia eta Turismo Ministerioa lege honetako zortzigarren xedapen gehigarrian adierazitako eginkizunak betetzen hasi eta hurrengo urtean egingo da.

5. Lehen paragrafoko a) hizkian, bigarren paragrafoko a) hizkian eta hirugarren paragrafoko a) hizkian aipatzen diren Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren jardura eta zerbitzuen barnean sartuko dira, halaber, aipatutako Ministerioak zerbitzu edo jardura horiek gauzatu edo eskaintzeko eskumena ematen dien erakunde erantsiek gauzatu eta zerbitzuak.

6. Urte bakoitzeko Estatuko aurrekontu orokorren legeetan zehaztuko da bigarren eta hirugarren paragrafoetan aurreikusitako tasen bidez bildutako zenbatekoaren zein ehuneko jasoko duen Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak, energia-sektorearen alorrean dituen eginkizunak bete ditzan.

5. Jokoaren administrazio-kudeaketari dagokion tasa

Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioari dagokio tasa hau kudeatzea.

II. Izaera publikoko ondare-prestazioak

1. Telekomunikazio-operadoreek eta telebista bidezko ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuaren zerbitzu-emaile pribatuek egin beharreko ekarpenak, Estatuko esparru geografikoan nahiz autonomia-erkidego baten esparru geografikoa baino handiagoan aritzen direnak, Espainiako Irrati eta Telebista Korporazioa finantzatzeko abuztuaren 28ko 8/2009 Legearen 5. eta 6. artikuluetan araututakoak.

2. Abenduaren 30eko 43/2010 Legearen 31. artikuluan arautzen den posta-ekarpena.